



HAL
open science

Iruñe ondoko euskal testu zahar berri bat

Ekaitz Santazilia

► **To cite this version:**

Ekaitz Santazilia. Iruñe ondoko euskal testu zahar berri bat. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et documenta*, 2013, 116, pp.91-119. artxibo-00868394

HAL Id: artxibo-00868394

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00868394v1>

Submitted on 1 Oct 2013

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

FONTES LINGVÆ VASCONVM

stvdia et
docvmenta




SEPARATA

Año XLV • Número 116 • 2013

Iruñe ondoko euskal testu zahar
berri bat

Ekaitz SANTAZILIA

FONTES LINGVÆ VASCONVM stvdia et docvmenta



La reduplicación compleja en euskera: notas acerca de su formación y sus paralelos en otras lenguas <i>Iván Igartua</i>	5
Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (7 – barnera begirako zenbait erkaketa) <i>Koldo Artola</i>	31
Iruñe ondoko euskal testu zahar berri bat <i>Ekaitz Santazilia</i>	91
‘ <i>Cer alcatte edo alcatte ondo</i> ’ Un dato para la geografía histórica del euskera en la Llanada alavesa (Axpuru y Heredia) <i>Roberto González de Viñaspre / Pedro Uribarrena</i>	121
Euskararen laguntzaile ahantziaz: * <i>iron</i> aditzaren historia <i>Manuel Padilla</i>	131
Basque complex predicates and grammar change <i>Juan Carlos Odriozola / Xabier Altzibar</i>	171
Biformulatzaile urruntzaileak: euskarazko diskurtso-markatzaileen hiztegia osatzeko atariko azterketa <i>Ines Garcia-Azkoaga</i>	191
Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa Nafarroako familia euskaldunetan (1970-2012) <i>Paula Kasares</i>	209
Sobre <i>Deredia</i> , nombre original y forma usada en euskara de <i>Heredia</i> <i>Mikel Gorrotxategi</i>	235
Topónimos alaveses de base antroponímica acabados en <i>-(i)ano</i> <i>Patxi Salaberri Zaratiegi</i>	245
Bai/ez galderen pertzepzioaren aldeak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera: euskararen prosodia gaitasuna lantzeko zenbait datu argigarri <i>Iñaki Gaminde / Asier Romero / Aintzane Etxebarria / Urtza Garay</i>	273

Año XLV
Número 116
2013

Iruñe ondoko euskal testu zahar berri bat

Ekaitz SANTAZILIA*

1. SARRERA¹

O rain artean argitara eta ezagutzera eman gabe egon den testu zahar bat dakargu gaur hona. Azterkizun dugun testua 2012an Untzuko (Txulapain) edo inguruko herri bateko parrokiako liburuak Iruñeko Elizbarrutiko Artxibora eramán zirenean agertu zen eta aipatu artxiboan gordetzen da. Orduan artxibozaina zen José Luis Salesek aurkitu zuen eta hari eta Fernando Hualderi esker izan dut haren berri. Ondoren datorrena testu horren edizioa da. Transkripzio eta oharrez gain, testua espazio eta denboran kokatzen saiatu gara, inguruko lekukotasunekin alderatuz. Testuari filologiatik eta dialektologiatik hurbildu bagatzaizkio ere, ez da gure asmoa azterketa dialektologiko sakona egitea, gerora horretarako balio dezakeen testu bat ezagutzera ematea baizik.

2. TESTUAREN NONDIK NORAKOAK

2.1. Deskribapena

Testua inprimatutako liburu baten barnean josirik dagoen eskuizkribua da; Anberesen argitaratu zen *Rituale seu manuale romanum, Pauli V Pont. Max. jusu editum, cum cantu toledano & appendice ex manuali toledano* li-

*UPNA/NUP, UPV/EHU.

¹ Lan hau UPV/EHUko Historia de la Lengua Vasca y Lingüística Histórico-Comparada (GIC 10/83, IT 486-10) ikerketa-talde kontsolidatuaren barnean kokatzen da, Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuropeoarrak eta Euskara (HiTeDi) (UFI 11/14) Prestakuntza eta Ikerketa Unitatearen baitan. Bihoakio, orobat, nire esker ona Fernando Hualderi testuaren berri emateagatik, Teresa Alzugarayri eta Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboari testua landu eta editatzeko emandako erraztasunengatik eta Iñaki Camino, José Antonio Goñi, Orreaga Ibarra, Patxi Salaberri Zaratiegi, José Luis Sales eta Juan José Zubiriri egindako iruzkinengatik. Azkenik, laburpenaren ingelesezko bertsioa Camino Buenori zor diot eta frantsesezkoa Amaia Mujika eta Allande Sokarrosi. Lanean daudekeen akatsak nireak baino ez dira.

buruan hain zuzen. Obra horrek elkarren artean oso antzekoak edo berdinak diren edizio franko izan zituen eta honakoa 1721ekoa da. Liburuaren eta eskuizkribuaren orrien tamaina 155 x 210 mm-koa da, larruz estalitako egurrezko tapekin enkoaderaturik dago eta bi tintatan inprimatu zen. Latinez dago baina Toledoko Jarraibidearen deiek, espero bezala, gaztelaniazko moldaketa dakarte.

Liburu hau, Erromatar Erritua, Trentoko Kontziliotik aurrera parrokia katolikoetan sakramentuak emateko jarraibideak jasotzen dituen eskuliburu da; bataioak, ezkontzak, eta beste. Liburuak Eliza Katolikoaren errituak batu eta arautu zituen. Apaiz katolikoentzat hura jarraitzea derrigorrezkoa izanik, edizio franko izan ditu, garai horretan liburu liturgiko asko argitaratzen zituen Moretus familiaren Typographia Plantinianan, esaterako. Toledon, baina, liturgia propioak iraun zuen, hispano-mozarabiar deituak hain zuzen, eta liturgia horretan, besteak beste, Sakramentuak emateko ohitura bereziak jarraitzen zituzten, horien artean ezkontza ospatzekoarena. 1614tik aurrera Toledoko Jarraibidea Espainia osorako eta Hego Ameriketarako onartu zen, eta bertara zuzendutako liburuetan Jarraibidea Erritu Erromatarraren eranskin gisa argitaratu. Erromako erritualaren eta Toledokoaren arteko aldeetarik bat ezkontzaren Sakramentua emateko moldean dago. Jarraibide horrek, besteak beste, ezkontideei egin beharreko dei bereziak ditu eta berauek latinez ez, baina ohiko hizkuntzan emateko aukera dago, horregatik datoz gaztelaniara moldatuak.

Testuinguru horretan txertatu behar da hizpide dugun eskuizkribua. Toledoko Jarraibidean eliz-deiak, ezkontzarakoak barne, latinez eta gaztelaniaz daude, Espainian erabiltzeko baitira, baina zer egin ezkontideek gaztelania ulertzen ez badute? Hori horrela, gure eskuizkribua ezkontideei esan beharreko deietako baten itzulpen moldaketa da². Liburuan ezkontzaren sakramenturako latinetik ezkon-deia dator, ondoren gaztelaniazko moldaketa, eta horren ondotik josirik, 456 eta 457 orrialdeen artean hain zuzen, euskarazko eskuizkribua, gaztelaniazko bertsioaren itzulpen-moldaketa dena.

Plegu erdi batean kaligrafia argian eta akatsik gabe idatzita, bi folio eta lau orrialde hartzen ditu eskuizkribuak. Pleguaren erdian ur marka biribila dago, baina ikusten zaila da, batetik ez delako kalitate handikoa eta bestetik, pleguaren erdian dagoenez, tolesturaren erdian geratzen baita. Liburuaren orriek ez dute ur markarik; bai, ordea, kortesiazkoek: J N S hizkiak dituzte.

Ezbairik gabe, ohikoak izanen ziren horrelako erdal testuen euskarazko itzulpen-moldaketak herri euskaldunetako apaizen artean. Ondarrak Nuingo parrokiari agertu zen testu bat argitaratu zuen *FLV*-n (1982: 395-396) (Hemendik aurrera *Nuin* izendatu dugu). Testu hori, gurea bezala, Erritu Erromatarrarekin batera argitaratutako Toledoko Jarraibideko eranskinaren ezkontzako dei baten itzulpen-moldaketa da, baina hori 1818ko edizio batean dago eskuizkribaturik. Dударik ez dago, beraz, garai horretan horrelako moldaketak egiten zirela, eta oso litekeena da apaizen artean elkar trukatu eta partekatzea, nahiz eta kasu honetan nabarmena den ez dagoela Ondarraren

² Jose Antonio Goñik esan didanez, posible da dei horien itzulpena hitzez hitzekoa ez izatea eta moldatzaileak bere beharretara zertxobait egokitzea. Ezkontideen arteko hitzarmena, ordea, balio juridikoko testua den heinean, ezin da libreki itzuli eta interpretatu: itzulpenak ofiziala behar du izan. Hala ere, *Nuin*-en (*cf.* *infra*) hitzarmena ere euskaratua dago.

testuaren eta gurearen arteko loturarik: batak bestea oinarri izan duela ezin esan, beraz. Argi dago gure testua zainduagoa eta maila goragokoa dela Ondarrak dakarrena baino.

2.2. Estiloa eta eragina

Esan berri dugun bezala, testuak eite bereko idazkiek baino maila ja-soagoa ageri duela nabari da, *Nuin*-ekin alderatuta, esaterako. Hori horrela, gurea ez da, segur aski, dialektologiaren aldetik harribitxia: alderdi horretatik ez du informazio berri askorik ematen. Caminoren (2003a: 43 eta hurrengoak) irizpideei segika, testu xume ez fidagarritzat jo beharko genuke, eta hizkeraren ezaugarriak modu ez zorrotzegian agertzen dituzten testuen artean kokatu, nolabaiteko hizkera jasoagoak dialektoaren ezaugarri ohikoetatik zerbait aldentzen baitu. Izan ere, Apezetxeak (*apud* Camino *ibid.*) edo Salaberrik (2008) Lizarragaren lanetan erakutsi zuten bezala, oso litekeena da gure autoreak ere garaiko beste egile batzuen testuak ere ezagutu izana; antza denez, hori ez zen orduko predikari eta apai-zen artean salbuespena. Gerora erakutsiko den bezala, alderdi formaletik, fonologikotik batik bat, hori bermatzen duten argudioak badaude, baina estilo aldetik ere bada zer esan.

Hasteko, testua itzulpen moldaketa bat da, baina ez hitzez hitzekoa. Autoreak testua bere beharretara eta euskararen estilora egokitzeko ahalmena egin du, mezua helarazterako orduan euskara zuzena eta estetikoki zaindua erabiliz, itzulpen hertsia mugak bazter utzirik³. Badu, hartara, ukitu literariorik. Bestelako eredurik izan zezakeela uste izatea ez da inondik ere erokeria. Alde batetik, darabilen gaia, ezkontzarena, ohikoa da garaiko predikarien artean; Lizarraga Elkanokoak, esaterako, jorratzen du 103. Sermoian (Pagola *et al.*, 1996: 472-477). Badira, bestalde, antzekotasun irmoagoak: Corpus Arakatzaillea baliatuta, zenbait atzeman ditugu, grafia gaurkotuan eman ditugunak. Agirrek 1808an idatzi eta 1850ean plazaratutako *Erakusaldietan* «Gañera ezkontzako Sakramentua artu ezkerro, gizona ezta gizonarena, baizik emaztearena, eta gizona ez da emaztearena, baizik gizonarena» (61. Erakusaldia) dio eta ideia bera dugu gurean *cergatic ezcondu esgueros bein, ez guizonac du ecustecoric bere gorputcean, ta ain guti andreac ere berean* (44-6). Mendiburuk bere aldetik, honakoa dakar 47. *Otoitz-gaian*: «Sakramentu au Ezkontza da, edo Matrimonioa: ta da umez bein mundua, ta gero zerua onez ta santuz beterik uzteko Jesusek utzirikako Sakramentua» eta oso antzekoa dakar Ubillosek 1785ko *Kristau doktriñ berri ekarleko* XX. Irakurgaietan: «Ezkontza edo matrimonia da, humez bein mundua, ta gero zerua onez, ta Santuz betetzeko, Jesusek utzirikako sakramentua» eta gurean: *Gure Jaunac utzizuen sacramentu hau, humes beiñipein mundua, ta guero cerua ones, ta sandus beteric uzteco* (28-31). Horrekin batera, ez dezagun ahantz

³ Satrustegik (1984: 44), 1750eko ediktuaz mintzo, gureari ere bikain doitzen zaizkion hitzak idatzi zituen: «Lejos de ceñirse al estilo dudosamente pedagógico del edicto, el traductor se tomó la libertad de refundir los conceptos fundamentales y adaptar los términos a las posibilidades del auditorio. El resultado no es tanto una traducción, como un intento de aproximación de la literatura magisterial al lenguaje coloquial del pueblo. La ruptura de los esquemas rígidos que impone la traducción literal confieren al trabajo más claridad en las ideas expuestas y espontaneidad en la utilización del lenguaje...».

Zildoeko Perutxenean bazirela Mikelestorenaren eta Iruñean bizi izandako Mendibururen lanak (Diez de Ultzurrun, 1960: 378). Gure testuaren autoreak nolabait presente izan zitzaizkeela esateko argudioak badira.

2.3. Testuaren egilea, kokalekua eta data

Ez da zuzenean zehazten eskuizkribuaren egilea zein den eta testua noiz idatzi duen. Liburuaren portadaren ifrentzuan sinadura bat dago Fr. Matheo de Morata dioena. Izenpe hori bera daraman liburu bat dago une honetan (2013/02/26) interneten salgai. Liburu horrek Brebiario Erromatarraren 1719ko ale bat, hori ere Anberesen inprimatua, 1723ko *Proprium Sanctorum Hispanorum* lana eta ondorengo urteetan argitaratutako bestelako obra batzuk biltzen ditu, baina Morataren sinadura lehen obran baino ez da ageri. Horrezaz gain, Kataluniako bibliotekan Morataren izena daraman 1702ko liburu bat gordetzen da: *Officium et missa in festo et per octavam Corporis Christi* izenekoa, hori ere Anberesko moretustarrena. Morata hau Argandan 1665ean Barranco abizenaz sortu eta Escorialen 1687an habitua hartu zuen berbera izan daiteke. Escorialen sartu zenetik 1730ean hil zen arte, organo, harpa eta karilloi jotzaile (Jambou, 1988: II, 133; Noone, 1998: 183-184, 293) eta monasterioko bestelako afera ekonomikoetan (Mediavilla, 2005, 2009, 2010) ibili zen. Hala bada, Morataren postuak eta egoerak horrelako liburuak jabetzan izateko aukera ematen ziola argi dago, batik bat horiek argitaratu zirenean zuen adina kontuan izanik, baina ezin jakin nola iritsi zen haren liburu bat Nafarroara. Edozein gisaz, Morataren ogibideak, sorlekuak, bizi izan zen garaiak eta sinaduraren grafiak gure euskarazko testuaren egilea izatetik behin betiko urruntzen du. Nuinen, Untzuren ondoan, antzeko testu bat (Ondarra, 1982) aurkitu izanak eta biek darabilten idazkera eta estiloak, iradokitzen du parrokiatiko apaizak berak izan zitezkeela testuaren atontzaileak. Gerora sakonduko badugu ere, aitzina dezagun gure testuaren autoreak euskaraz irakurri eta idazteko ohitura zerbait baduela, fonetismoez urruntzen den grafia eta terminologia sistematikoa baitu eta, arestian aipatu bezala, estilo landukoa baita bere prosa.

Ez da erraza, hori esanda, testua zein herritako euskararen idatzia den zehaztea. Idazkiak darabilen hizkera, dialektoa izanik ere, ahozkoetik aldendu eta maila jasoagokoa izateak zailtzen du dialektologiak eskain diezagukeenaren bidez testua eremu batean kokatzea. Edonola ere, beste datuen faltan, hasierako hipotesizat Untzu edo ingurukoa dela onartu beharrean gaude, hots, agertu zen lekukoa. Aurreragoko analisisian erakutsiko da hori baieztatzea, dialektologiaren ikuspegitik ere, ez dela zentzugabea.

Hori horrela, konparaketa lanetarako, nahiz eta ez beti, inguruko testuak hautatu ditugu. Ahozko lekukotasunen barnean, Erizkizundi Irukoitzerako Nabatzen Miguel Elkanori Aingeru Madariagak jasotako eta Etxaidek (1984) argitaratutako datuak (*EI*), eta Ezkabarteko Anotzen Artolak (1985) 80ko hamarkadan bildutako ahozko lekukotasunak (*Art*) erabili ditugu⁴.

⁴ Hala ere, ahozko lekukotasunak arazotsuak dira, izan ere, euskara idatziaz islatzen ez dituen ezaugarriak erruz dituzte eta bestalde, konparaketarako baliatu ditugun testuak baino franko modernoagoak dira eta ezin dugu ukatu euskara aldatu izan dela denbora horretan zehar. Horren adierazle garbi da, esaterako, *Nuin*-en ez dugula *i* ondoko *t*-ren palatalizaziorik eta ibar berekoak diratekeen 80ko hamarkadan bildutako Usiko lekukotasuna (*apud* Camino, 2003a: 246) edo Beorburukoa (Artola, 1992: 215-216), bustiduraz josiak direla. Ahalaz, kanpo utzi ditugu ahozko ekoizpenak.

Idatzizkoetan, honakoak: Ezkabarten dagoen Makirriain herriko norbaitek 1828an Diez de Ultzurrunendako idatzitako sermoia (Diez de Ultzurrun, 1960), *Mak* laburduraz agertu duguna; Zildoeko udaleko 1773ko testutxoa (*Zil*) (Irigarai, 1932); *Nuin* laburdurapean Nuingo 1826 inguruko ezkon deiaeren itzulpena (Ondarra, 1982) eta ez horren sistematikoki, Joakin Lizarragaren (Pagola *et al.*, 1996) testuak, Beriainen bi obrak (1980 [1621], 1626), Muzkiko Elizalderen *Dotrina* (1994 [1735]) eta bestelako testuak. Tarteka baino ez dira aipatuko, bestetik, Ondarrak (1981) argitaratutako 1729ko predikua, kokapen geografiko garbirik gabea baita, Iberoko XIX. mende hasierako Gurutze-bidea (Arraiza, 1988), Orrioko 1750eko dantzen kontrako ediktuaren itzulpena (Satrustegi, 1984), Ukarko 1865eko dotrina (Satrustegi, 2002) eta Artatzako XVIII. mende bukaerako edo XIX.aren hasierako testutxoa (Salaberri, 2004). Zildoeko Perutxeneko sermoi sorta ez dugu baliatu. Horiek edizio eta azterketa sakon baten beharrea daude (laster izanzen duguna, hain segur) eta bitartean, esku eta hizkera diferenteak ageri baitituzte, Caminok (2003b: 432) bere lanean ere hartutako erabakia gure eginik, ez dira gure testua kokatzeko hagitx lagungarri.

Kokapen kronologikorako ere datu gutxi ditugu. *Post quem* data, jakina, liburuak argitaratu zenekoa da, erran nahi baita, 1721. urtetik honatakoa. Liburuaren lehen jabea Morata izan bazen, oso litekeena da hura hil arte eta beranduago ere, bere liburuak ez barreiatu izana, hartara, 1730eraino atzera dezakegu data hori, eta beranduago ere bai, liburuak Escorialetik Iruñe ingurura bidaiatzeko denbora pizar bat ere behar izan zuela uste badugu. Bestelako egileen eraginak izan zitezakeela kontuan harturik, euskaraz idazteko ohiturak, testuaren garbitasunak, lexikoko adibide zenbaitek eta horrekin batera arkaismo eskasiak XVIII. mendearen azken laurdenera-edo eraman lezake idazkia, edo beranduago idatzia ere egon zitekeen, baina aieruz baizik ezin dugu hori baieztatu.

3. TESTUAREN TRANSKRIPZIOA

3.1. Jatorrizko grafian

Hau da jatorrizkotik egin dugun transkripzioa. Lerrokadura errespetatu eta zenbatu dugu eta adibideak lerro-zenbatze horretan oinarrituta emanen dira hemendik aurrera. Lanaren amaierako eranskinera jo beza irakurleak, faksimilea ikusi nahi badu.

* * *

1. *folioa (aurkia)*

Ezconcera doaciñei emandaquioqueten aviso gaia

Beguirazacie, nere cristabac, gendeen arraza /² munduan irauteco ta conservaceco den lana, de- /³ la ezconza edo matrimonioa, eta videnabar nor /⁴ naiec, Jaungoicoac vide ortara deitu esgueros, ta /⁵ artaraco impedimenturic ez izan esgueros, arde- /⁶ zaquen vide, zuec orai arcera zoazten vici- /⁷ modu hau. Lurreco Paradisuan Adan ta Eva- /⁸ ren artean Jaung.^{ac} beinipein eguñicaco lana, /⁹ da ezconza; eta guero berris aren Semeac, gure /¹⁰ amorios gui-

zon eguiñic lurrera jausita le- /¹¹ gue berria mundu gucira barratu zuenean, /¹² utci zuen ezconza santificaturic, edo Sacramen- /¹³ tura biurturic: Eta vio- tceco garbitasun andi- /¹⁴ bat escacen balimbedute sacramentuec, ar- /¹⁵ tu behartuztenen aldetic, izanic matrimo- /¹⁶ nioa sacramentua, ta S.ⁿPabloc erratenduenes /¹⁷ sacramentu andia; ecusacie, nolaco santidadea, /¹⁸ ta garbitasuna escatuco duen zuen baitan, zu- /¹⁹ ec orai eguitera zoazten matrimo- nio onec. //²⁰

Lan ontara conciencia garbiequi, ta ongui pres- /²¹ tatuta elduderenei, ematen diote Jaung.^{ac} elcar- /²² ren artean baquean vicitzeco, vici modu on- tan /²³ izan oi deren neque, trabaju, ta naigabeac ariñ /²⁴ eremateco, ta beren gain arcen duten obligue- ///²⁵

1. *folia (ginberra)*

cioari cobru emateco, behar duten gracia, bedicioa, /²⁶ ta socorru gucia. Ecusacie bada, nola, ta cer al- /²⁷ detara zucendu behartucien ceren vici guci- co as- /²⁸ mo, ta eguiteco guciac. Gure Jaunac utzizuen /²⁹ sacramentu hau, humes beñipein mundua, /³⁰ ta guero cerua ones, ta sandus beteric uzte- /³¹ co, ta elcarri lagunceco vici deren arteo beren /³² lan, edo joan etorri gucie- tan, beñere albas /³³ eman gabe batac berceari beren erteco amoría /³⁴ galdu dezaquen vide, edo ocasioric. Enfin edo /³⁵ azqueneco matrimonioa eman izanducequio- /³⁶ ten guizonei, araguiaren aldetic izan oideren /³⁷ tirricacio macurrac obequi escuraceco, ta guizo- /³⁸ nac bere andrea, ta andreac bere gui- zona izan- /³⁹ esgueros, etzezaten izan lizunqueriataraco /⁴⁰ gueiagoco gogo charric. Orgatic eguin behar- /⁴¹ ducie aleguiña vicitceas contuarequin, elca- rri /⁴² zor diocien leialtadea beñere albas galdugabe, /⁴³ ta videgabeco lanequi ceren ezconza ciquinduga- /⁴⁴ be; cergatic ezcondu esgueros bein, ez guizonac /⁴⁵ du ecustecoric bere gorputcean, ta ain guti an- /⁴⁶ dreac ere berean, dion bezala S.ⁿPabloc, ta onequi /⁴⁷ erran nai duena da, ezcondu esgueros, andrea- /⁴⁸ rena dela guizona, ta andrea berris senarra- /⁴⁹ rena. Sacramentu onec da- car berequi, gure ///⁵⁰

2. *folia (aurkia)*

Jesus onac Eliza bere esposarequin eguinzuen /⁵¹ unione arren significa- cioa, eta ala Eliza bere /⁵² esposari gure Jaunac iduquicion amorioaren era- /⁵³ coa, iduqui behardiocie elcarri zuec ere. Urrical- /⁵⁴ du behar zaio guizona bere andreari, creatura eri- /⁵⁵ agocoa dena bezala: laguna emanen dizugu, ta /⁵⁶ ez esclava. Senarrac principalqui bere andrea- /⁵⁷ ren laguncearequi bateo izan behar du echeco /⁵⁸ familia ta ondasunen manezalea, ta con- /⁵⁹ serva- zalea, utciric aldebat alferqueria, gaitz /⁶⁰ gucien iturria dena bezala. Senarraren es- /⁶¹ cupean egon beharduzu zuc, esposa, echeco go- /⁶² bernua- ri dagozquion gauza gucietan: despre- /⁶³ ciatucotuzu munduco eraqueric virtuteen he- /⁶⁴ dertasunaren aldean: contuarequin zaituco du- /⁶⁵ zu ceren echeco hacienda: izanen zara casti- /⁶⁶ dadearen virtutearequi erchiric dagon iturria /⁶⁷ bezala: Jaung.^{as} landara nior ere ez tu andreac /⁶⁸ bere senarra baño gueiago estimetu ta onetsi /⁶⁹ behar, ez eta guizonac bere andrea baño gueia- /⁷⁰ go ere. Conveni den gucian aitucoducie elcar, ta el- /⁷¹ car ongui artus, el- carri lagundus, eta sufritus, vici- /⁷² co zarate baquean, ta Jaung.^{ac} aguincen

dicien /⁷³ eran. Cembait aldís, ta erac ala aguincen du- /⁷⁴ en gucian, galduco ducie ceren aldetic naiz ///⁷⁵

2. folioa (*ginberra*)

batac, naiz berceac ceren erteco baquearen ga- /⁷⁶ tic. Baña gucien gañen pensazacie ongui, /⁷⁷ Jaungoicoari nola contu eman behar diocien /⁷⁸ ceren vicitzas ez eci, bai eta ceren hume, ta /⁷⁹ familienas ere. Contu andibat iduqui behar- /⁸⁰ ducie, Jaung.^{ren} beldurtasuna ceren echoco, /⁸¹ edo meneco guciei eracustearen gañen. //⁸²

Era ontan portacen bazarate bada, orai /⁸³ arcera zoazten estadoan, Jaung.^{ac} arindu- /⁸⁴ co du zuen uztarria, lagunduco dicie be- /⁸⁵ harducien gucien, ta emanen dicie bere /⁸⁶ bedicio sandua, ta vicitza onen ondorean /⁸⁷ bebris seculaco descansua, ta gloria. ///

3.2. Grafia gaurkoturik

Ekarri berri dugun traskribapenarekin batera, bihoa testua gaurko grafian emana. Gaurkotzean honako irizpideak jarraitu ditugu:

- <qu> digrafoarekin egin dugun bezala, <a>, <o>, <u> eta kontsonante aurreko zein hitz amaierako <c> guztiak <k>-z ordezkatu dira: *daquioqueten* > *dakioketen*, *irauteco* > *irauteko*, eta <e> eta <i> aurrean <z> eman dugu: *gucira* > *guzira*.
- Ozen ondoko txistukariak afrikatu ditugu: *Ezconcera* > *Ezkontzera*; hala ere, mailegu zenbaitekin txistukaria frikaria edo afrikatua den duda izan dugu eta horiek parentesi artean islatu ditugu: *conciencia* > *kon(t)zien(t)zia*. Orobat egin da <s> zenbaitekin: afrikatuak izan daitezke eta dudazko kasuak baitira, parentesi artean adierazi dugu afrikazioa (*cfr.* § 4.1.2.1): *descansua* > *deskan(t)sua*.
- <ch> guztiak <tx> dira: *charric* > *txarrik*.
- <h>-ak, grafikoak edo etimologikoak direnez, kendu dira: *behar* > *bear*.
- <ñ> grafema bere horretan utzi dugu: *doaciñei* > *doaziñei*.
- Jatorrizko testuko <v> guztiak dira: *aviso* > *abiso*.
- <p> eta aitzineko <m>, <n> idatzi dugu: *cembait* > *zenbait*.
- <gu> digrafoaren bigarren elementua ezabatu dugu <i> eta <e> aitzinetik: *guero* > *gero*.
- Aditz nagusiak eta laguntzaileak, aditz perifrasiatiko elementuak edo aditz laguntzaileari atxikitakoak, euskara batuan bezala, bereiz idatzi ditugu, bilkurak aldaketa fonologikoak eragin ez baditu: *idukion* > *iduki zion* vs. *ecusacie* > *ekusazie*.
- [Izena + *bat*] egitura bereiz eman dugu, gure testuan ez baita horretarik eratorritako aldaketa fonologikorik: *andibat* > *andi bat*. Orobat egin dugu [aditza + *gabe*] egiturarekin: *galdugabe* > *galdu gabe*.
- Jatorrizkoan bezala, *ez* adberbioa bereiz idatzi dugu, bilkurak aldaketa fonologikorik eragin ez badu: *ez izan* > *ez izan* vs. *etzezaten* > *etzeza-ten*.
- Elementu morfologiko eta lexiko zenbait euskara batuaren arauen arabera banatu edo elkartu dira: *esgueros* > *-es geros*, *vici modu* > *bizimodu*.

- *gendeen* bere horretan uztea deliberatu dugu, ez baita seguru jakiten ahal hasierako fonemak zein ahoskera duen (*cf.*: § 4.1.2.5).
- Laburdurak osatu ditugu, guk erantsitakoa taket artean emanetz.

* * *

Ezkontzera doaziñei eman dakioketen abiso gaia

Begira zazie, nere kristabak, gendeen arraza munduan irauteko ta kon(t)serbatzeko den lana dela ezkontza edo matrimonioa eta, bidenabar, normaiek, Jaungoikoak bide ortara deitues geros, ta artarako inpendimenturik ez izanes geros, ar dezaken bidea, zuek orai artzera zoazten bizimodu au. Lurreko Paradisuan Adan ta Ebaren artean Jaun[goiko]ak beinipein egiñikako lana da ezkontza; eta gero, berris, aren semeak, gure amorios gizon egiñik lurrera jau(t)sita, lege berria mundu guzira barratu zuenean, utzi zuen ezkontza santifikaturik edo sakramentura biurturik. Eta biotzeko garbitasun andi bat eskatzen balin bedute sakramentuek, artu bear tuztenen aldetik, izanik matrimonioa sakramentua ta, S[a]n Pablok erraten duenes, sakramentu andia, ekusazie nolako santidadea ta garbitasuna eskatuko duen zuen baitan zuek orai egitera zoazten matrimonio onek.

Lan ontara kon(t)zien(t)zia garbieki ta ongi prestatuta eldu derenei ematen diote Jaung[oiko]ak, elkarren artean bakean bizitzeko, bizimodu ontan izan oi deren neke, trabaju ta naigabeak arin eremateko ta beren gain artzen duten obligazioari kobru emateko bear duten grazia, bedizioa ta sokorru guzia. Ekusazie, bada, nola ta zer aldetara zuzendu bear tuzien zeren bizi guziko asmo ta egiteko guziak. Gure Jaunak utzi zuen sakramentu au, umes beiñipein mundua, ta gero zerua ones ta sandus beterik uzteko ta elkarri laguntzeko bizi deren arteo, beren lan edo joan-etorri guzietan, beiñere albas eman gabe bata bertzeari beren erteko amoria galdu dezaken bide edo okasiorik. Enfin edo azkeneko, matrimonioa eman izandu zekioten gizona, aragiaren aldetik izan oi deren tirrikazio makurrak obeki eskuratzeke, ta gizonak bere andrea ta andreak bere gizona izanes geros, etzezaten izan lizunkeriatarako geiagoko gogo txarrik. Orgatik egin bear duzie alegiña bizitzeas kontuarekin, elkarri zor diozien leialtadea beiñere albas galdu gabe, ta bidegabeko laneki zeren ezkontza zikindu gabe; zergatik ezkondues geros bein, ez gizonak du ekustekorik bere gorputzean, ta ain guti andreak ere be-rean, dion bezala S[a]n Pablok. Ta oneki erran nai duena da, ezkondu esgue-ros, andrearena dela gizona ta andrea, berris, senarrarena. Sakramentu onek dakar bereki gure Jesus onak Eliza bere esposarekin egin zuen unione arren signifikazioa, eta ala, Eliza bere esposari gure Jaunak iduki zion amorioaren erakoa iduki bear diozie elkarri zuek ere. Urrikaldu bear zaio bere andreari, kreatura eriagokoa dena bezala: laguna emanen dizugu ta ez esklaba. Senarrak prin(t)zipalki, bere andrearen laguntzareki bateo, izan bear du etxeko familia ta ondasunen maneazalea ta kon(t)serbazalea, utzirik alde bat alferkeria, gaitz guzien iturria dena bezala. Senarraren eskupean egon bear duzu zuk, esposa, etxeko gobernuari dagozkion gauza guzietan. Despreziatuko tuzu munduko erakeriak birtuteen edertasunaren aldean; kontuarekin zaituko duzu zeren etxeko azienda; izanen zara kastidadearen birtuteareki ertxirik dagon iturria bezala; Jaun[goiko]as landara, nior ere ezta andreak bere senarra baño geiago estimetu ta onetsi bear, ez eta gizonak bere

andrea baño geiago ere. Konbeni den guzian aituko duzie elkar eta, elkar ongi artus, elkarri lagundus eta sufritus, biziko zarate bakean ta Jaun[goiko]ak agintzen dizien eran. Zenbait aldis, ta erak ala agintzen duen guzian, galduko duzie zeren aldetik, naiz batak naiz bertzeak, zeren erteko bakearengatik. Baña guzien gañen, pen(t)sa zazie ongi Jaungoikoari nola kontu eman bear diozien zeren bizitzas ez ezi, bai eta zeren ume ta familie-nas ere. Kontu andi bat iduki bear duzie Jaung[oikoa]ren beldurtasuna zeren etxoko edo meneko guziei erakustearen gañen.

Era ontan portatzen bazarate, bada, orain artzera zoazten estadoan Jaung[oiko]ak arinduko du zuen uztarria, lagunduko dizie bear duzien guzian ta emanen dizie bere bedizio sandua, ta bizitza onen ondorean, berris, sekulako deskan(t)sua ta gloria.

4. TESTUAREN AZTERKETA

4.1. Grafia eta hotsak

Oso grafia sistematikoa darabil autoreak. Gaitza da hitz berean grafia txandaketak ediretea, salbuespenak salbuespen: *utci* (12) vs. *utzi* (27). Horrezaz gain, gutxi dira bokal asimilazioak eta bestelako prozesu fonologikoak gure testuan eta dauden bakanak, ez dira sistematikoak. Puntuazioa ere landu eta sistematikoa da. Puntu eta koma darabil eta (*e*)*ta* aurretik beti egon ohi da koma bat: horren salbuespen bakarrak bi izen sintagma koordinatze-rako orduan aurki daitezke, eta ez bi aditz sintagmen arteko koordinazioan.

4.1.1. Bokalak

Bokaletan ez dago *e* eta *o*-ren disimilaziorik artikuluaurrean: *Jaungoicoac* (4), *eracoa* (52-3), *eriagocoa* (54-55), *estadoan* (83), *artean* (8, 22), *zuenean* (11), *santidadea* (17), *naigabeac* (23), *berceari* (33), *andrea* (38), *viciteas* (41), *manezalea* (58), *eracustearen* (81). Salbuespen bakarra 33. lerroko *amoria* da. Arestian esan bezala, baliteke disimilazioak maila jasoaren mesedetan saihestu izana. Artolak (*Art*) ere ahozko lekukotza jaso zuen eta Nabatzen ere bada (*El*), baina ez lehenagoko bertako testuetan.

Bestalde, ez da sistematikoki *i* eta *u* ondoko *-a*-ren asimilaziorik gertatzen, ezta kontaktuan dauden fonemen artean ere, adibideok erakusten dutenez: *berria* (11), *sacramentua* (16), *andia* (17), *familia* (58), *iturria* (66), *mundua* (28), *zerua* (30), *sandua* (86). Hala eta guztiz ere, *balimbedute* (14), *obliquicioari* (24-25) eta *estimetu* (68) bezalako kontradibideek eta *gucian* (69)-ekin batera *gucien* (85) ere izateak iradokitzen du egilearen hizkeran asimilazioa gertatzen bada ere, testuan, maila altuagoko hizkera erabili nahianedo, alde batera uztea erabaki duela; are gehiago kontuan hartzen badugu kontradibideotan asimilazioa distantzia handiagoan gertatu dela. Gogoan izan, hori horrela bada, espero izatekoa dela hitz bukaerako *-ia* > *-ie* ere gertatzea (*cfr.* arau fonologikoen hierarkiaz Hualde, 1989). Salaberrik (2000: 885; 2002: 231) isoglosa honen barnean kokatzen ditu Ezkabarte eta Txulapain, eta hori bat dator *Mak*-ek, *Nuin*-ek, *El*-k eta *Art*-ek erakusten dutenarekin, baina ez dago *Zil*-en. Caminok (2003b: 451) ere Txulapainen eta Ezkabarten gertatzen dela dio eta azpi-euskalkiaren hego-ekialdea uzten

du eremu honetatik at. Orrion ere 1750ean (Satrustegi, 1984) ez dagoela ematen du, baina badira salbuespenak testuan.

Artean (8, 22) dugu, baina *erteco* (33) ere bai. Azkena Goi Nafarreraren ezaugarri da (cfr. *FHV*, 70 eta *OEH*), baina ez da sistematikoa, gure testuan bezala. Orreagan dugu *ertean* 1619an (*TAV*, 125-126), Ultzaman eta Intzan XIX eta XX. mende hasierako Avemaria batzuetan (Apezetxea, 1985: 90), Erroibar eta Esteribarren (Ibarra, 2007: 52), *Mak*-en eta *Nuin*-en sistematikoki dago, Ukarren (Satrustegi, 2002), Caminok (2003a: 245) Ezkabarteko Anotzen lekukotzen du ez aspaldi, Lizarraga Elkanokoak biak ditu eta Beriainek *artean* du, baina *Christio gucien ertean* (1626: 115) bat ere ikusi dugu. Deigarria da, gure testuan bezala, *arteo* (31) gehiengo zabalean *a*-duna dela, sistematikoki *ertean* duten testuetan ere⁵.

24. lerroko *eremateco* asimilazioa, dudarik gabe, Pirinioez haraindiko autoreengan aurkitzen da erruz, gainontzean Lizarraga Elkanokoaren eta Kardaberatzen lanetan adibide bana besterik ez dugu kausitu eta *Nuin*-ek ez du, baina ohikoa da, esaterako, Erroibarren (cfr. Ibarra, 2007 lanean adibide franko).

Echoco (80) soilik behin dator testuan eta *echeco* (56, 60, 65) hirutan. Errata bat izan daiteke, baina bakarra litzateke testu osoan eta ez du ematen hala den. Ez dugu Iruñe inguruko testuetan horren kidekorik aurkitu, baina ezin da atzendu hitz elkarketan (*e*)*txokandre* eta *etxukandre* bezalakoak franko ageri direla Nafarroan: Lizarragak du, Lintzoainen jaso du Ibarrak (2007: 140) eta Aezkoan Caminok (2011: 814); azken honek gainera, hego-nafarraz eta hortik goiti ere ageri dela dio (2003b: 459). *Echoco* analogiaz sortutako forma bat denik ezin da baztertu, beraz.

Diptongoaren bigarren elementuaren kontsonantizazioaren adibide bat dugu testuan; *crstabac* (1) hain zuzen. Mitxelenak (*FHV*, 177) Gipuzkoako ezaugarritzat du eta egia da Kardaberatzen testuetan badela, Irazustarenean, Otxoa Arinen dotrinan, Xenpelar eta Txirrita bertsolariek ere badarabilte, eta horrela, beste askok. Ubillos eta Mendibururen testuetan oso bakan ageri da (*kristio* nahiago du azkenak). Dagoeneko irakurlea ohartuko zen aipatutako autore guztiak Tolosa eta Irun bitartekoak direla eta Mihura hartzen badugu, Lapurdiko kostaldera ere hel gintezke. Nafarroan ere bada horren lekukotasunik. Zelaietak (2004: 237) Malerrekan, Baztanen, Bertizaranan, Erroibar eta Esteribarren aurkitu du kontsonantizazio prozesu horren berri, baina ez dirudi hegoalderago oso ohikoa denik: *Mak*-ez landara ez da *cristauba* / *cristaube* edo *crstabec* (*cristioa* eta *cristauen* aldaerekin batera) ageri. Lizarraga Elkanokoak, Elizalde eta Beriainek *kristio* dakarte. Tamalez ez dugu testuan konsonantizazioa ahalbidetzen duen testuinguru fonologiko horren beste adibiderik, beraz ezin jakin gure autorearen hizkeran zenbateraino zen ohikoa. Ezin da baztertu, berriz ere, beste eredu literarioen eragina egon daitekeela horren atzean.

⁵ Ibarrak (2007) besteak beste *akatu ertio*, *bitertio* eta *bizkitertio* dakartza egungo euskarari, baina zalantzazkoak dira gure ustez, *u* eta *i* ondoko asimilazioaren ondorio izan daitezkeelako. Dena den, Hualdek (1989: 661) dioenez ***begierte* bezalakoak lekukotzen ez badira eta fonologikoki ezinezkoak badira, orobat gertatuko litzateke Hualdek kontuan hartzen ez dituen *bitertio* eta *bizkitertio* formekin. Asimilazioa atzeranzkoa eta hitz-elkarketaren aurretikoa litzateke (*artio* > *ertio* - *bi(zki)tertio*) bere ustez, eta ez aurreranzkoa eta *bi(zki)*-ko *i*-ren eraginez gertatua.

4.1.2. Kontsonanteak

4.1.2.1. Txistukariak

/s/ fonemarako bi grafema kausituko ditu irakurleak: <c> eta <z>, eta horien banaketa garbia da, erdal sistemaren arabera beti ere. *i* eta *e* aitzinean <c> dugu beti, berdin hitz hastapenean nola erdian: *cembait* (73), *bedicio* (25, 86), *dicie* (85, 72), *zucendu* (27), etab. Gainontzeko bokalekin, hitz hondarretan edo ondoren kontsonantea izanik, <z> da aukera bakarra. Hor ditugu, horren erakusgarri, *ardezaquen* (5-6), *azqueneco* (35), *duzu* (64-65), *ezcondu* (44, 47), *guizon* (10, 38, 44, 48 etab.), *zara* (65) edo *naiz* (75).

/ts/ fonemaren grafiak arazoak dakarzkigu, izan ere, kontsonante ozenen ondoren batik bat, autoreak ez du afrikazioa markatzeko grafemarik. Gauzak horrela, *laguncearequi* (57) bezalako adibideetan guk txistukari afrikatua irakurri dugu (hots, *laguntzeareki*), baina maileguak dudazkoak dira: *conciencia* (20) edo *principalqui* (56) ikusita, autoreak afrikatua ahoskatzen zuen jakitea zail begitantzen zaigu.

Ozen ondotik <c> ageri da *e* hizkiaren aitzinetik: *aguincen* (72, 73), *berceac* (75), *arcera* (6, 83). Tamalez testuak ez digu *i*-ren aitzineko adibiderik ematen ozenaren gibeletik, aipatu *conciencia* (20) edo *principalqui* (56) arazotsuez landa. Modu berean, [ozen + txistukari] egituraren ondoren *e* (edo *i*) ez duen adibide bakarra *ezconza* (3, 9, 12, 43) da eta, bistan dena, <z>-z emana.

Gainontzean, bokal artean edo hitz hondarrean kausitzen dugu afrikatu bizkarkaria. Horrelakoetan hiru aukera bereiz daitezke nabarmen: <c>, <tc> eta <tz>, eta autore honengan ohikoa den sistematikotasunetik aldentzen diren adibideak azalduko zaizkigu oraingoan. Ematen du aditz-izenerako <c> dela nagusi, *escacen* (14), *portacen* (82), *escuraceco* (37) eta *conservaceco* (2) hitzek erakusten dutenez, baina erro berekoak diren *vicitzeco* (22) eta *vicitceas* (41) salbuespenak dira. Bokal artean <tc> ohi dago, *gorputcean* (45), *viotceco* (13) eta *utciric* (59) ikusita, baina arestian aipatutako *vicitzeco* (22)-rekin batera, *etzezaten* (39) eta *utzi* (28) kontradibideak daude. Txistukari ondoko bokala <a> denean ere <tz> dugula ematen du, adibideak oso antzekoak izanda ere: *vicitzas* (78) eta *vicitza* (86). Hitz akabuko adibide bakarra *gaitz* (59) da.

Ez dugu /ts/ fonemaren adibide ugari eta irmorik. <ts>-z emandako *one-tsi* (68) kenduta, gainerakoak balizko txistukari afrikatua ozen ondoan duten maileguak dira⁶: *conservaceco* (2), *conservazalea* (58-9), *pensazazie* (76) eta *descansua* (87). 10. lerroko *jausita* hitzaren txistukaria frikari edo afrikatua den eztabaidarako bide izan daiteke, *OEH* eta *Mak* begiratuta bigarrenaren alde egitea zentzuzkoena izanik ere.

<ch> digrafoa erabiltzen da beti /ts/ fonema adierazteko, *cf.* *charric* (39) edo *echeco* (61, 65). *Erchiric* (66) ageri da behin, baina ez bedi pentsa txistukari apikaria dugunik, hots, (*h*)*erts*. Izan ere, Lizarraga Elkanokoaren testuetan, Erroibar eta Esteribarren (Ibarra, 2007: 52), Muzkin, etab. maiz dugu *ertxi*, azaltzen zaila den forma palatalizatua⁷.

⁶ Gogoan har balitekeela ozen ondoko txistukariok frikariak izatea (*cf.* *supra*).

⁷ Palatalizazioaren jatorria adierazkorra izan liteke.

4.1.2.2. <h> grafemaz

Testuan <h> ageri duten hitz zenbait bada. Erakusleen artean *hau* (7, 29) dugu, bestela ere *behar* (15, 25, 26, 40, 53, 54, 59, 61, 67, 76, 79, 84-85) frankotan dago eta hor dira, *hume* (29, 78), *hedertasun* (63-4) eta *hacienda* (65) ere.

Argi dago <h>-a kontu grafikoa besterik ez dela. Autoreak egiten duen erabilera sistematikoa izanik ere, hasperendun hizkeretan kausitzen ohi den adibideetan ez dago: *ortara* (3), *onec* (19) *arcera* (6), *beññere* (32), *aleguiña* (41) *nai* (47) etab. Ereduek bultzatu ahal izan dute egilea grafema hori erabiltzera. *Hacienda*-ren kasuan bistakoa da erromantzearen eragina. Orobat gerta zitekeen euskal erduekin; horregatik dugu *hau* erakuslea <h>-z, baina *ortara* edo *onec* gero. *Behar*-ren adibideak baditu, Lizarraga Elkanokoak edo Kardaberatzek bezala, baina ez hauek bezain modu sistematikoan: Mendiburu eta Ubillos dira *behar* ugari dituztenak. *Hume* oso ohikoa da hizpide dugun eremuko zein kanpoko testuetan: *Mak*-en eta *Nuin*-en badira adibideak, Mendiburuk badakar, Lizarragak ere bai, Ondarrak (1981) argitaratutako 1729ko prediku batean ere bada, etab. Horren hedaturik egotearen arrazoia hasiera bereko jatorri kultuko zenbait hitzetan agertzea izan daiteke. Hor dira etengabe autore hauen testuetan, besteak beste, *humedade*, *humil(dade)*, *humano*, *humore* eta gisakoak.

4.1.2.3. *i* ondoko bustidura

Gure testuan *t* ez da *i* ondoren sekula bustitzen⁸. *Itten* edo *ittut* bakan bazuk dauzka Ibarak (2007), baina zinez gutxi dira bustidura ezaren aldean eta Iruñe inguruko zein hegoalderagoko euskaretan ez dago. Desberdina da, baina, bokalaren ondorengo *n*-ren azuia. Testuan sistematikoa da palatalizazioa, sudurkaria artean dagoenean: *doaciñei* (Izenb.), *eguiñicaco* (8), *beññere* (32, 42) *aleguiña* (41), *baño* (68, 69), *baña* (76), *gañen* (76, 81). Salbuespen bakarra *beinipein* (8) da, baina 29. lerroan hori bera *beññipein* dugu. Azken adibide horrek erakusten du autoreak ez duela hitz ondarrean *i* ondorengo *n*-a palatal adierazten, besteak beste *gain* (24) *eguin* (40), *contuarequin* (41, 64) edo *bein* (44) adibideek ere frogatzen duten moduan. Salbuespena behin lekukotzen den *ariñ* (29) da. Orobat gertatzen da hitz bukaeran ez, baina ondolik kontsonantea duten sudurkarietara: *eguinzuen* (50)⁹, *aguincen* (72, 73) edo *arindu* (83) ez dira palatalak. Artatzako dotrinan (Salaberri, 2004) ez dugu inongo palatalizaziorik, Erroibar eta Esteribarren (Ibarra, 2007) biatarik ageri zaigu, *Mak*-en banaketa gure testuarenaren oso antzekoa da, baina hitz amaierako bustidura gehiago daude eta mailegu zenbait ez dira palatalizatzen. *Art*-en *n*-ren bustiduraren banaketa testu honek ageri duen berbera da. Irizpide grafikoak alde batera, nabarmena da bustidura gertatzen dela eremu honetan. Salaberrik (2000: 891) Iruñetik gora Elkano kanpo utzita kokatzen du isoglosa eta egia da, *Zil* eta *Nuin*-en zein ahozko lekukotasun diren *Art* eta *EL*-n dugun bitartean, Artatzan (Salaberri, 2004) eta Garesen

⁸ Egia da, hala eta guztiz ere, bustidura grafikoki adieraztea zaila dela erdal grafia erabilia, hortaz, izan liteke erabili arren idazten ez duen autorerik.

⁹ Ohar bedi, autorearentzat adibide honetako sudurkaria segur aski ez dagoela hitz mugan, morfema mugan baizik, aditz nagusiaren eta laguntzailearen arteko bereizketa ez baita gardena mintzo askotan, azentuak eta bien artean gertatu ohi diren bilakabide fonologikoez erakusten dutenez.

(Salaberri, 2002: 232) ez dela halakorik eta Lizarraga Elkanokoak ere ez duela palatalizatzen, salbuespen bakan batzuk kenduta. Caminok (2003b: 451) ere bustiduraren eremuan ditu Txulapain eta Ezkabarte eta hortik ipar-mendebalderagoko eremuak. Tarteko egoerak ere badira, 1729ko predikuak (Ondarra, 1981: 149) erakusten duena esaterako, non maileguetan <ñ>-ak ikus badaitezke ere, euskal jatorriko hitzetan gutxiago diren.

4.1.2.4. Ez + z- / d- aditza

Adibide bana besterik ez badugu ere, *etzezaten* (39) eta *ez tu* (67), ematen du txistukariaren kasuan afrikazioa gertatzen dela eta herskariaren kasuan ahoskabetzea. Lexikalizatua dagoen instrumentalaren ondotik, *esgueros* (4, 5, 39, 44, 47) adibidean bezala, ez da ahoskabetzerik gertatzen, Lizarraga Elkanokoaren gisan, edo salbuespen bat kenduta, *Nuin-en* eta *Mak-en* bezala. Dena den, ezaugarri hori oso orokorra da eta ezer gutxi lagun gaitzake testua kokatzen.

4.1.2.5. <j>-ren ahoskeraz

Grafia etimologikoa izan daiteke *gendeen* (1) hitzean duguna, baina bada beste aukerarik, Lizarraga Elkanokoak, *guende* idazten baitu, nahiz eta, guk dakigula, beti ere hitz elkarketan den. *Jaun*, *Jaungoiko* eta *Jesus*-ekin loturik dauden hitzak beti <j>-z idazten ditu autoreak; ez da aise erlijioarekin lotutako termino «tekniko» horiek ahoskera belarra edo irristaria duten jakitea. *Trabaju* (23) maileguarekin, aldiz, belarraren alde egitea da zentzuzkoena zailtzarik gabe. Berezko euskal ondareko hitzak dira *jausita* (10) eta *joan* (32) eta lehena irristarizat har dezakegula uste badugu ere, bigarrena dudazkoa da. Zernahi ere den, hirugarren aukeraren, hots, sabaiaurreko txistukari zrikariaren inongo arrastorik ez da gure testuan. Caminok dioskunez (2003b: 439),

*j- zaharraren ahoskera sabaiaurrekoa ageri zaigu hego-nafarrera egiten zen ibarretan: Goñerrian, Ollaranen, Oltzan, Itzarbeibarko Utergako eta Ukarko dotrinetan, Elortzibarko Zabalegiko predikuan, Eguesibarren, Artzibarren eta Aezkoan. (...) Txulapainen eta Ezkabarten [y] sabaikaria bildu da hondarreko urteotan, baina XX. mende hasierako Txulapainen eta baita XIX. mendeko Ezkabarten sabaiaurreko hotsa egiten zela dirudi. (...) Erroibarren hots sabaiaurrekoa ez da ezezaguna.

Mak-en ssay, *ssatea*, *ssabe*, *ssaquin*, *ssayo* eta *ssauchi* aurkitzea erraza da, baina *jauchi* edo *jayo*-rik ere bada eta *joan* beti da irristaria. *Nuin-en* bezala *Art-en* ere irristariak ditugu eta belareak zenbaitetan, baina ez palatalik. Caminok Txulapaini buruz esandakoa *EI*-k baieztatzen du, Nabatzen ere sabaiaurrekoak baitaude, nahiz eta salbuespenen batekin.

4.1.2.6. Bokal arteko herskari ahostunen galera

Ez da gertatzen gure testuan. *Eguitera* (18), *egon* (61), *bada* (26), *iduiqui* (53) edo *videnabar* (3) dugu beti. Salbuespena *aitucoducie* (70) da. Idatziaren eragina izan daiteke herskariaren kontserbazioa. Ahozko lekukotasunak alde batera utzita, Lizarraga Elkanokoak ere *aitu* franko ditu, *aditu*-rekin batera eta *Mak-en* adibide bat dago. Hitz horretatik at, bokal arteko -d- idazten dute testu hauetan, *aitu* hitzak horrela ihartzeko bidea hasia duela iradokiz. *Egin* orokorra da, baina *in* ere franko dago testuetan. *Art-en*, ahozkotik eta egungo egunetik hurbilago dagoenez, horrelakoak ohikoak dira.

4.1.2.7. Sinkopa

Adibide bakarra *orgatic* (40) da, *Nuin-en* eta *Mak-en* ere badena. *Art-en* ugariagoa da sinkopa eta *EI-n* *abratsa* bezalakorik bada. Artatzen (Salaberri, 2004) *-garrena* > *-garna* dago eta *atra* bezalakoak Beriain, Elizalde edo Lizarragaren testuetan ohikoak dira eta Salaberrik (2003: 887) Iruñe inguru osora hedatzen du ezaugarria. Besteak beste Caminori (2003b: 449) esker dakigu aski hedaturik dagoela Nafarroan ezaugarri hori. Ibarrek (1996: 75) esaten duenaren arabera, sinkopa Nafarroako ekialdeko euskararen ezaugarri sendoa da eta Basaburua eta Imotzeraino joan behar dugu hori ez aurkitzeko. Dena den, sinkopa ez da sistematikoa eta *orla* edo *orgatik* duten testuek ez dute zertan *atra* izan behar. Gure testuaz den bezanbatean, espero liteke autorearen hizkeran sinkopak ugariagoak izatea baina fonetismoetatik alde egite horrek idatzian jasotzea saihestu duela. Zernahi delarik ere, ezaugarri horrek ezer gutxi zehatz diezaguke testuaren kokapena.

4.2. Izen morfologia

4.2.1. Izenordainak eta mugatzailea

Izenordain zein determinatzaile erakusleetan ez dago *g*-ren arrastorik: *hau* (7, 29), *artaraco* (5), *aren* (9) / *arren* (51), *ortara* (4), *ontan* (22, 82), *ontara* (20), *onequi* (46), *onec* (19, 49) eta *onen* (86) dugu beti. *Art-en* eta *EI-n* ere ez da gertatzen eta Artatzen ere ez dago (Salaberri, 2004). Erroibarren eta Eguesibarren eta hortik ipar-ekialdera badago (Ibarra, 2007), eta Ezkabarteko Orrion ere aurkitu du Satrustegik (1984), baina ez da ohikoa. *Mak* eta *Nuinen* ere ez dira ageri, baina Lizarraga Elkanokoak bietarik du. Ematen du gure testuaren kokagunetik ekialderagoko ezaugarria dela hori.

Testuan izenordain indartuak eta arruntak ditugu. Bigarrenen artean, *nere* (1), *zuec* (6, 53), *aren* (9) / *arren* (51), *zuen* (18, 84) eta *gure* (9, 28, 49, 52) ditugu eta indartuak dira, halaber, *bere* singularra (38, 45, 46, 50, 51, 54, 56, 68, 69, 88), *beren* plurala (24, 31, 33), *berequi* (49), eta *ceren* (27, 43, 65, 74, 75, 78, 80). Bistakoa denez, indartu guztiak posesiboak dira eta ezbairik gabe esan dezakegu indartu hauek guztiek Linschmann-Aresti legea salbuespenik gabe betetzen dutela¹⁰. *Nuin-en* eta salbuespen bakanekin *Mak-en* hala bada ere, ez da horrela, *Art-en*, Ukarren (Satrustegi, 2002) edo Lizarraga Elkanokoaren testuetan, besteak beste.

Iruzkina merezi duen balizko izenordain bat dugu 73. lerroan. Testuan *erac* dator eta ez dago argi, lehen begiratuan behinik behin, izenordaintzat edo izen arruntzat hartu behar den. Izenordain anaforikoa bada, *Jaungoikoa*-rekin koindiza daiteke. Jatorrizko erdal testuak ere ez digu duda argituko, aipatu bezala, testua itzulpen moldaketa librea denez, mezua zerbait aldatzen baita: «La muger conceda con fu marido, y figa fu parecer: el varon, por tener paz muchas vezes pierda de fu derecho y autoridad»¹¹. Semantikaren

¹⁰ 65. lerroko *ceren*-ek, 2. pertsona pluralean izanik ere, aditzean singularrean komuntzatzen du (*duzu*). Nahi bada, hau har liteke salbuespen gisa, baina gure iritziz, pertsona komuntzadura gordeta eta *zu*-ren iragan plurala gogoan izanda, ontzat eman daiteke.

¹¹ Balio beza adibide honek, egileak testua hizkera aldetik moldatzeaz gain, eduki eta ideietan ere bere ukitua eman diola erakusteko. Euskal testuan, pasarte horretan behinik behin, parekideago azaltzen dira senar-emazteak.

zailtasunaz gain, morfologia ere ez da gardena. Izenordaina ergatibo singularra da eta Corpus Arakatzaila eta testua miatuta, zaila da horrelakorik aurkitzea, Bizkaian eta bizkaieraren Gipuzkoako eremuan ez bada. Gainera balio plurala izaten du, nahiz eta ez beti: plurala da, konparazione, Antero Apaolazaren gipuzkeran. Nafarroan horrelakoak aurkitzea zinez bitxia bailitzateke, izentzat jotzea erabaki dugu eta «portaera» edo «egoera»-ren sinonimotzat hartu, *OEH*-ren arabera bigarren adiera Gipuzkoan baizik lekukotzen ez bada ere.

Arrei edo *arreki* dardarkariarekikoak ditugu, besteak beste, *Art*-en, Ukarren (Satrustegi, 2002), *Mak*-en, baita Lizarragagan ere, Nafarroako euskara askotan bezala.

Izenordain zehaztugabeetan *nior* (67) dago, beste askoren artean Lizarragak, Ukarko dotrinak (Satrustegi, 2002), *Nuin*-ek edo *Mak*-ek dutena, eta *nornaieci* (3-4) ere bada, oso hedatua hizkera horietan.

4.2.2. Deklinabidea

Ergatibo plurala bereizten duen ez da erraza jakiten. *Sacramentueci* dago 14. lerroan, baina zaila da atzizkiaren *-e*- asimilazio baten ondorioz ageri den edo ergatibo pluralaren marka den jakitea. Salaberrik (2000: 893) Zildotzen kokatzen du *-ak* erg. pl.-aren muga eta Makirriain *-ek* aldaeraren barnean sartzen du, ez ordea, zalantzarik gabe. *Jaunac* erg sg., asimilaziorik gabe ageri denez, ematen du *sacramentueci* hitzean ere asimilaziorik ez dela gertatu; hots, bereizketa badela.

Datibo singularreko marka *-ari* da beti: *obliguecioari* (24-5) *berceari* (33), *esposari* (42), *gobernuari* (61-2), *Jaungoicoari* (71); plurala, aldiz, *-ei*: *doaciñei* (Izenb.) *guciei* (81). Gisa berean, *elcarri* (31, 41, 53, 71) da testuan behin eta berriz duguna. Salaberrik (2000: 894) ekialde / mendebalde banatzen du hizkera, ekialdean *-ai* singularrerako eta *-ei* pluralerako dagoen bitartean, mendebalean singularrean *-ari* eta pluralean *-eri* eta *-egi* dugulakoan. Gure testuan, ordea, singularrean dardarkaria dugun bitartean, pluralean ez da horrelakorik, *Nuin*-en bezala. *Mak*-ek ere horrela jokatzen du baina badu singularrean *Jangoicoai* edo *dagonai* bezalakorik. Nabatzen (*EI*), bestalde, *gizonai* plurala ere jaso zen.

Instrumentala beti apikaria da, honako adibide hautatuei begiratuta ikus daitekeenez: *esgueros* (4, 5, 39, 44, 47), *berris* (9, 48, 87), *amorios* (10), *erratenduenes* (16), *sandus* (30), *vicitceas* (41), *albas* (32, 42). *Zil* eta *Nuin*-en ere horrela gertatzen da, baina *Mak*-en denak dira bizkarkariak. *Art*-en txandaketa dago. Salaberrik (2000: 898) Iruñetik gora ezartzen du apikari / bizkarkari txandaketa, edo bizkarkariaren gailentzea, Muzki izanik salbuespena. Caminok (2003b: 453) aldiz, Txulapaingo eta Ezkabarteko lekukotasun zenbaitetan forma bizkarkariak harrapatu ditu eta *EI*-ko datuetan denak dira bizkarkari. Orrion (Satrustegi, 1984) bizkarkariak dira denak, *cussusco* izan ezik¹², eta Artatzan (Salaberri, 2004) dagoeneko bizkarkariak dira kausi daitzkeen bakarrak.

Komitatiboan bi aldaera daude: *-ki* eta *-kin*: *garbiequi* (20), *lanequi* (43), *onequi* (46), *berequi* (49), *laguncearequi* (57) eta *virtutearequi* (66) daude alde

¹² Aurreko txistukariaren eraginez?

batetik, eta *esposarequin* (50), zein *contuarequin* (41, 64) bestetik. Ohar bedi lehen adibidea singularra dela: *conciencia garbiequi*. Beste behin, horrelako salbuespenek iradokitzen dute singular eta plural bereizketa garbia testu idatziazen ezaugarri direla, eta menturaz ahozkoan ez zeudela horren garbi, edo azentuaren bidezko bereizketa zela baliatzen zena. Salaberrik (2000: 897) ageri duenez, *-n-dun* formak ez dira ohikoenak Iruñerrian. *Zil-en*, *Nuin-en*, *Mak-en* eta *Art-en*, konparazione, ez dira ageri. Caminok (2003b: 446) *-n* gabeko formak Ekialdeko euskararen ezaugarritzat ditu. Gure testuaz denaz bezanbatean, bietarik agertzea tarteko egoeraren isla izan daiteke, edo egilearen maila jasoaren ondorio¹³.

Ablatibo eta motibatiboan beti ageri da amaierako herskaria: *aldetic* (15, 36, 74), *orgatic* (40), *cergatic* (44), *baquearen gatic* (75-6). Ezin utzizkoa da ablatibo zaharraren lekukotasun ihartua, *ondorean* (86) hitzean. Horren erabilera emankorra Mendebaldeko testuez landara ez da aurkitzen eta XVIII. menderako galdurik dago (Lakarra, 1984; Santazilia, 2013: 261 eta hurrengoak). Forma ihartu hedatuen eta zaharrena *ondoren* da, artikulurik gabea. Gurea bezalako forma artikuluduna bilatzeko XIX. mendeko Gipuzkoa eta Bizkaiara jo behar dugu; hala ere, Nafarroan ere badago: Hualde Maiori ikusi diogu erronkarieraz eta Lizarraga Elkanokoak zein *Mak-ek* etengabe darabilte; Sakanan ere badago *ondorien* (cf. Burundako adibideak; Zuazo, 2010: 118). Hala ere, *Nuin-ek ondoan* du. Oso litekeena da arkaismo gisa soilik hitz horretan gorde izana.

Adlatiboak ez du sekula herskaririk, *Nuin*, *Art* eta *Mak-en* bezala: *Ezconcera* (Izenb.), *ortara* (3), *lurrera* (10), *gucira* (11), *eguitera* (19), *ontara* (20), *aldetara* (26-7), *landara* (67), *arcera* (83).

Gisa berean, izenordainetatik at, jabego genitiboa *-ren* da singularrean eta *-en* pluralean: hor dira horren erakusgarri, besteak beste, *Evaren* (7-8), *andrearen* (56-7) edo *eracustearen* (81) singularrean, eta *gucien* (60), *ondasunen* (58) edo *virtuteen* (63), aldiz, pluralean. Ez dago ez *-an* ez *-ain* aldaeren arrastorik. Horretan bat dator *Nuin* zein *Mak-ekin*¹⁴, bai eta Salaberrik (2002: 233) Ezkabartekotzat jotzen duenarekin.

4.2.3. Eratorpena

Eratopen atzizki aipagarri batzuk daude testuan. *-tasun* (13, 18, 64) hainbatetan ageri da, baina bereziki esanguratsua da *beldurtasuna* (80). Iparraldeko autoreengan ageri da eta hegoaldean XIX. mendean da nagusi, nafarreraz batez ere eta Gipuzkoan zenbaitetan; Mendiburu eta Ubillosek, besteak beste badute eta Lizarragak eta *Nuin-ek* ere bai. Ematen du hitza erlijio testuen barnean zabaldu zela, Iztuetak ere behin erabiltzen baitu, Jaungoikoari izan beharreko «beldurtasuna» aipatzeko unean.

-zale (58, 59) aldaera Elkanoko Lizarragak badu, *Mak-ek* eta *EI-k* ere bai eta ohikoa da Iparraldean eta Nafarroan, baita oikonimian ere: *Euntzalearena* eta horren aldaerak ditugu, konparazione, Astrainen, Aldaban, Izkuen, Orrion edo Ostitzen, XVIII. mende inguruan.

¹³ Ondarrak (1981: 149) dio sudurkaririk gabeko formak apokopatuak direla. Guk –eta ez guk bakarrik (cf. honetarako Santazilia, 2013: 270)– ez dugu horren garbi. Iruditzen zagu arkaismo bat direla, hau da, hor ez dela sekula apokopatu den sudurkaririk izan.

¹⁴ *Nuin-en* bada, halere, *andran* dudazko bat, eta Nabatzen (*EI*) *amana* eta *senarrana* daude.

Erromantzetiko *-ion* eta *-cion / -sion*, honela ebazten ditu autoreak: Lehenarendako *-ione* du; *unione* (51). Gainontzeko bientzako, aldiz, *-zio / -sio*: *obliguecioari* (24-5), *bedicio(a)* (25, 86), *ocasionic* (34), *tirricacio* (37) *significacio* (51)¹⁵. Lizarraga Elkanokoak *Mak*-ek eta *Nuin*-ek ere banaketa bera dute, eta Elizalde ere bai, nahiz eta azkenak baduen *pasione*-rik. Berriainek *-cione* eta *-cio / -(s)sio* biak ditu, baina ez *-sione*. Zoritxarrez, gure testuak ez du *-on* hutsik, horren bilakabidea zein gisara gertatu den erakutsiko digunik.

4.3. Aditz morfologia

4.3.1. Forma trinkoak

Joan aditzaren forma trinkoak *-i* du pluralean: *doaciñei* (Izenb.)¹⁶. 2. pertsona pluralean, aldiz, *-te* pluralgilea dago: *zoazten* (6, 19, 86). Azken horren adibide guztiak adlatibo baten ondokoak dira eta etorkizun hurbila adierazteko erabili dira.

Egon aditzaren *dagozquion* (62) forma lekukotzen da. Elkanoko testuetan eta XIX. mendeko Gipuzkoan bezala. *Dagozkan* aldaera ez da gure testuan lekukotzen, baina Iparraldeko eta Gipuzkoako zenbait testutan badago.

4.3.2. Aditz nagusia

Aditz oina zein partizipioa baliatzen da ahalerarekin: *ardezaquen* (5-6) vs. *galdu dezaquen* (34) baina aginteran lehena besterik ez dago: *ecusacie* (17, 26), *pensazacie* (76). *Nuin*-en eta *Mak*-en beti aditz oina ageri da.

Geroaldiko aspektu marka *-en* da *-n-z* amaitzen diren aditzetan: *emanen* (55), *izanen* (65). Salaberrik (2000: 904) ezarritako isoglosekin bat dator hori. Gainontzekoetan *-ko* dago. Gure testuan ez dago *-tuko* > *-tiko*, bilakaeraren arrastorik: *escatuco* (18), *despreciatuco* (63), *zaituco* (64), *aituco* (70); orobat *Nuin* eta *Mak*-en, baina Txulapain eta Ezkabarten garai modernoagoetan *-tiko* da azaltzen dena Caminoren (2003b: 441) ustetan eta *Art*-en ahozko lekukotasunak frogatzen duen bezala.

Ekusi forma zaharra (cfr. *FHV*: 64-5, Trask 1995: 208) da testu honetan lekukotzen den bakarra (17, 26, 45). Horrekin batera *iduiqui* (52, 53, 79) (< **e-dun-ki*). Cfr. Schuchardt, 1923 [1947]: 58) berriagoa dugu, halere, ekialde zabaleko ezaugarria da berau (Camino, 2003b: 449). *Mak*-ek *icusi* du beti baina *iduiqui* dakar, Iberoko Gurutze-bideak bezala (Arraiza, 1988).

Zaitu (64) forma Gipuzkoako testuetan da nagusi. *OEH*-k halere, Goi Nafarreraz ere badela dio, baina segur aski Añibarroren nafarrerazko lanetan oinarrituta baino ez. Ez dezagun ahantz, dena dela, *-zai* dela inguru honetan aurkitzen ahal den aldaera eta Nabatzen ere *zaitu* eta *bidezai* jaso zirela *EI*-n.

Izanducequioten (33-4) agertzen da, hots, *izan* aditzarekin *-du* partizipio pleonastikoa, aspektu burutua adierazteko. Salaberrik (2000: 911) eta Caminok (2003b: 452) eremu osora hedatzen dituzte horrelakoak, baina *Mak*-en ez dago horren arrastorik.

¹⁵ Cfr., honekin batera, Iruñeko *Barkazio* toponimoa ere.

¹⁶ Gaur egun 2. pertsona singularra denak ere ageri du marka hori (cfr. *zoazi*), baina ez ahantz garai aurrehistorikoan plurala izan dela forma hau (cfr. honi buruz Ariztimuño, 2013: 366-367).

Ez daude, eta *Mak* zein *Nuin*-en ere ez, burutuaren gainean eraikitako aspektu burutugabeko formak, *kantatutzen* edo *utzitzen* bezalakoak azterkizun dugun hizkeran ageri badira ere (Camino, 2003b: 452).

Aditzen aktantez eta erregimenaz mintzo, ekar dezagun hona [aditz estatiboa + *behar*] perifrasiak **edun* erroko laguntzaileak eskatzen dituela eta ez izan errokoak: *izan behar du* (57), *egon beharduzu* (61). *Mak*-ek, *Art*-ek eta *Nuin*-ek ere hori dute, baina *El*-k *bear naiz* ere badakar. Bestalde, *lagundu* aditzak datibo komunztadura eskatzen du gure testuan: *elcarri lagundus* (71), *lagunduco dicie* (84) eta horretan bat dator *Nuin*-ekin.

Azkenik, mintza gaitezen aditz zenbaiten interpretazio semantikoaz. *Egon* aditza ere *dagon* (66) formapean eta partizipioan ere badago (61). Gure ustean, aditz horren interpretazio semantikoak estatibotasunarekin edo ekintza-aren iraupenarekin lotura du, gatzelaniazko «permanecer» aditzak bezala, gainontzean, *izan* aditza erabiltzen baita funtzio estatiboarekin; *Mak*-ek eta *Art*-ek, ordea, ez dute *egon* aditza zentzu horrekin bakarrik baliatzen¹⁷. Bestetik, *elduderenei* (22) adibidean ikusi ahal den moduan, *heldu* aditzak aspektu puntukaria adierazten du eta *etorri*-ren zentzua hartu, Nafarroako eta Iparraldeko euskaran ohi bezala.

4.3.3. Aditz laguntzailea

-*zue* > -*zie* asimilazioa sistematikoa da aditz laguntzailearen barnean. Salbuespenik gabekoak dira *zacie* (1, 76), *ecusacie* (1, 26), *ducie* (41, 69, 74, 80), *diocie(n)* (42, 53, 77), *dicie(n)* (72, 85) eta beste. Lizarraga Elkanokoak ere badi-tu (-*ze*-rekin batera, *cfr.* Santazilia, 2007) eta *Nuin*-ek ere bai. Horrek -*ze* aldaera duten lekukotasunen eremutik aldentzen du gure testua, hots, Iruñetik behe-itiko eremutik (Camino, 2003b: 445). Horrekin batera, objektua 3. pertsona plurala denean orainaldian azaltzen den *di-* erortzen da: *behartuztenen* (15), *behartucien* (27), *tuzu* (63). *Nuin*-en ere hala da, *Mak*-en ere bai behin izan ezik, eta ekialde zabaleko ezaugarria da Caminoren (2003b: 450) ustetan. 15. lerroko *behartuztenen* adibideak erakusten duenez, gurean ez da *tute*, txistukaririk gabea, lekukotzen eta *Mak*-en bietarik dago. Caminok (2003b: 454) Iruñetik goragoko zenbait eremutan kausitu badu ere, Txulapainen kasu, XX. mendean hedatutako berrikutza izan litekeela ere iradokitzen du, erran nahi baita, testua ekoitzi unetik honatagoko garaietan gertatutakoa.

Ez dago iraganeko -*n*-ren faltaren arrastorik, *Mak*-en, *El*-n eta *Art*-en bezala. *Nuin*-en galera gertatzeko bi aukera daude bakarrik, eta tamalez, bakoitzak gisa batera jotzen du, baina -*n*-duna dudazkoa da; *Zil*-en badago, baina Iberoko testuan (Arraiza, 1988) edo Lizarragaren obran esate baterako, sistematikoa da *durkariaren* falta. Salaberrik (2000: 902) Ezkabarte eta Txulapain ingurua *n*-duntzat du, salbuespenak salbuespen, Caminok (2003b: 437) bezala eta horrelakoak Ipar-Ekialderago ere aurkitzen dira (Ibarra, 2007).

Atzeranzko asimilazioz, bokal irekiera bat dago izan aditzaren orainaldiko Nor 3. pertsona pluralean: *deren* (21, 30, 36) dator testuan, erlatibozko menderagailuarekin, beti ere. *Nuin*-en ez dago horrelakorik eta Caminok (2003: 454) ez du Txulapainen ikusten, bai ordea Ezkabarten eta horren inguruko eremuan, besteak beste. *Mak*-en adibide bakarra dago eta *dire* da.

¹⁷ Ondarraren (1981) 1729ko predikuan esango nuke *egon*-en agerrera bakarrak ere adiera hori duela.

Datibo komunztaduran, 3. pertsona pluralean *-ote(-)* morfema dago: *ongui prestatuta elduderenei, ematen diote Jaung.^{ac}...* (20-21). *Mak*-en ere bada eta Salaberrik (2000: 901) Iruñerri osoa eta gehiago sartzen du eremu horretan. Hori horrela, *zioten* bezalako formak anbiguoak izan daitezke. Alde batetik «haiek-hari-hura» uler daiteke eta bestetik «hark-haiei-hura», baina ez dago anbiguotasunik, **edin* erroa (*-ki-*) erabiltzen baita bigarrenarekin iraganean. Horren adibide dugu *cequioten* (35-36), hots, (hura-haiei) *zitzaien*. Caminok (2003b) horrelakoak Iruñetik gora kokatzen ditu eta *Art*-en zein *Orrion* ere badira (Satrustegi, 1984). Salaberrik (2002: 236) Ekialdekotzat du *-ki*-ren agerrera, iraganean baizik ez bada gertatzen.

Ahalera iragankorra **ezan* laguntzailearen gainean eraiki da: *dezaquen* (5-6, 34) eta iragangaitzak **edin* darabil: *daquioqueten* (Izenb.). Adizki hone-tan datiboaren plural marka *-te* da eta ez *-e-* (cfr. *dakiekeen*). Ez dago *ahal izan* erako perifrasiaren arrastorik, eta *Nuin*-en zein *Mak*-en ere ez.

Amaitzeko, izan aditzaren Nor 3. pertsona pluralean ez da asimilaziorik gertatzen pluralgilearekin: *zarate* (72-82) dugu, eta ez *zarete*, Lizarraga Elkanokoaren testuetan, *Nuin*-en eta Mendibururen lanetan bezala.

4.4. Sintaxia

Erlatibozko perpaus ez jokatuak egiteko, *eguiñicaco* (8) lekukotzen da tes-tuan, forma ohikoa ekialdeko euskaretan (Camino, 2003b: 450) hasi eta Sakanaraino. Horrekin batera *eguiñic* (10), *beteric* (30), *erchiric* (66) eta *utci-ric* (59) ditugu modua adierazteko eta *-ik* dago bestalde, azalpenezko hone-tan: *izanic matrimonioa sacramentua* (15-6). Horrezaz gain *-ta* atzizkiaren adibideak ere badaude: *prestatuta* (20-1) dago moduzko zentzuan eta *jausita* (10) horri denbora zentzua dario. *Nuin*-en eta *Mak*-en denak dira *-ic*, baita *Art*-en ere, baina Salaberrik (2000: 915) Ezkabarte eta Txulapainen hain zu-zen, *-ik* eta *-ta*, biak daudela erakutsi du. Ez dago, ordea, ekialdean aski he-datua dagoen *-ika(n)* aldaeraren lorratzik.

Denbora perpaus bat dago: *legue berria mundu gucira barratu zuenean* (10-1). Ikusten denez, *-enean* agertzen da, eta ez ekialde zabaleko *-larik* (Camino, 2003b: 450) eta Nabatzeko (*EI*). *Zil*-en *celaric* dugun bitartean, *Mak*-en biak daude, baina *-enean* da nagusi eta *Art*-ek hori baizik ez du.

Ezkabarten eta inguruan espero bezala baldintzarako *balin* aldaera jaso da: *balimbedute* (14), eta ez *barin* (Camino, 2003b: 443). *Mak*-en ere hala da eta *Nuin*-en dagoen adibide bakarra *balidin* da.

Den heinean egituraren parekoa dugu *dena bezala* (55, 60). Erabilera hori *Mak*-ek eta Beriainek ere badakarte, eta Iparraldeko autoreengan ere franko-tan dugu (cfr. *OEH*), baina horiengan erlatibozkoak ez darama artikulurik. Caminok (kom. perts.) horrelako egitura artikuludunak mendebalean bai, baina ekialdean bereziak direla aipatu digu, baina *iten dutena becela* adibidea ere aurkitu du XVIII. mende Erdiko Ororbiako sermoi batean (Satrustegi, 1987: 102). Bestalde, Lizarragak ere artikulurik gabe erabiltzen ohi du, baina *S[an] Juan Evangelária izánzue apostoluétaic maíteéna Virjinarén sémeac ura ere virgin céna becála* ere irakur dakioke Elkanokoari (Pagola et al., 1996: 832). Ezin da baztertu, horrekin batera, Salaberriren (kom. perts.) ideia; ho-rrelako egitura artikuludunen atzetik erromantzearen eragina egon daitekee-la, hain zuzen (cfr. *como el que*).

*Ez ezik emendiozko esamoldearen lekukotasun bat dago: *ceren vicitzas ez eci, bai eta *ceren hume, ta familienas ere* (78-9). Aldaera hori, zentzu horrekin, ez dugu Lizarraga Elkanokoaren testuetatik kanpo aurkitu. OEH begirata, *ezi* testu frankotan dago, baina ez *ez ezi* egituran, edo erabilera horrekin. *-z gain* egituraren adierakide den erabilera hori *ez ezik* formapean baino ezin da ediren Larramendiz geroztik, eta mendebaleko euskaran, *ezi ze* edo *ez eze* aldaeren bidez. Ondarrak (1981) argitara emandako 1729ko sermoian, Larramendiren eraginaren hastapenetan beraz, dauden *ezi*-ak ere ez datoz bat honakoaren adierarekin.**

Aipagarria da emendiorako erabilitako egitura hau: *ezcondu esgueros bein, ez guizonac du ecustecoric bere gorputcean, ta ain guti andreac ere berean* (44-6).

Berezia da *Ezcondu esgueros bein* (44) denborazko perpausa, *bein* amaieran kokatzen duelako. Oso bakan lekukotzen da hori: Uriarteren testuetan eta Mendibururen zein Xalbador bertsolariaren dudazko adibide batzuetan besterik ez dugu ikusi Corpus Arakatzaila baliatuta.

4.5. Hiztegia eta aldaerak

Erran (16, 47), *berce* (33, 75)¹⁸, *guti* (45), *orai* (6, 19, 82) eta *sandu* (30, 86) dira testuan jasotzen diren aldaerak, *Nuin*-en eta *Mak*-en bezala (*guti* edo gisakorik ez dago *Nuin* eta *Mak*-en konparagarri). *Guti*-rekin batera, *landara* (67) horrek euskara erdialdetik ekialdera kokatzen du (Camino, 2003a: 102-3) baina ez dugu eremu horretan ohikoagoa den *manatu*, *agindu* (72, 73) baizik. *Tirricacio* (37) Mendiburuk eta Lizarragak dute (cfr. OEH). *Arteo* (31) ere ageri da, eta Elkanokoak, horrekin batera, *artañõ* ere badu. *Bedicio* (25), sudurkaririk gabe, Hegoaldeko Goi Nafarreraz franko lekukotzen da, nahiz eta *Mak*-ek sudurkariarekin duen; besteak beste Beriainek, Elizaldek eta Lizarragak dakarte, *bedeizio* aldaerapean normalean, eta azkenak *bedezio* ere behin. *Bedizio*, ordea, hemen baizik ez dugu kausitu.

Lizarragak sistematikoki, baina baita Elizaldek, Beriainek edo Nafarroako zein Iparraldeko autore zenbaitek *bekala* badute ere (cfr. OEH), *bezala*-rekin batera zenbaitetan, gurean *bezala* (46) da lekukotzen dena, *Zil*, *Mak* eta *Nuin*-ekin batera.

Beinipein (8) eta *beñipein* (29), ez bitez har «behintzat»-en sinonimotzat, baizik eta OEH-ren lehen adieran: «lehenekoz», «lehenik», «lehendabizi». Lizarragak ere horrela baliatzen du, baita Mogel eta Agirre Asteasuokoak ere, Iparraldeko autore zenbaitekin batera. Bestetik, *trabaju* (23) eta *lan* (2, 8, 20, 32, 43) ditugu. OEH-ren arabera zaila da bigarrena hegoaldeko testuetan kausitzea 1750 aurretik. Testu honetan *trabaju*-k duen adiera negatiboa da: «zailtasun» edo «arazo»-ren adierakide da, baina *lan*-ek askozaz ere zentzu zabalagoa hartzen du, «gauza» edo «afera»-ren sinonimo izateraino.

Escuraceco (37) nahiko hedatua dagoen OEH-ren hirugarren adierarekin lotzen da, hots, «garaitu» edo «kontrolatu» esan nahi du.

¹⁸ Antza denez, Anotzen *-st-* / *-r(t)z-* arteko dantza dago, berriki bederen (Artola, 1985: 110).

Albas (32, 42), «ahal bada» [< **ahal* + *ba* (*FHV*, 525) + instrumentala, segur aski] esanahiduna, Lizarraga Elkanokoak darabil. Instrumental apikariarekin, Mendiburuk badu adibide bakanik.

Barratu (11) nagusiki nafarra dago testuan. Horrezaz gain, *gueiago* (40, 68, 69-7) aldaera hedatua da testu honetan lekukotzen den bakarra, eta ez *iago*, Lizarraga Elkanokoak (*gehiago*-rekin batera) eta inguruko beste testu batzuek dutena.

Maneatu aditza, Lizarragak, Mendiburuk eta Beriainek ere badutena, gure testuan eratorritako izen bilakaturik agertzen da: *maneeazalea* (58). Horrela, izen gisa, Larramendik eta Añibarrok ere badarabilte.

Gañen (76, 81) hitzak arreta berezia merezi du. Forma hau artikulurik gabeko arkaismo gisa kausitzeko autore zuberotarrengana jo behar dugu (cfr. Santazilia, 2013: 256). Gainontzean artikulua egon bai, baina galdu dela pentsatu behar da, Gipuzkoako eremu batean bezala: *-ean* > *-en* bilakabidea ohikoa da hizkera horietan: *lurren*, *arten*, *kalen*, eta horrelakoak arruntak dira. Lehendabizi pentsa dezakeguna gure testuan ere artikulua galdu duela da, baina adibide bakarra litzateke, *artean* (8, 22), *gorputcean* (45), *aldean* (64) edo *baquean* (22, 72) bezalakoei erreparatuta. Bestalde, Corpus Arakatzailan begiratuta, *gañen* kausitzerik bada Zuberotatik at. Autore giputzak bazter utzirik, Mendiburuk eta Kardaberatzek ere badute adibide bakanen bat, gainontzeko hitzekin *-ean* sistematikoa den bitartean. Halere, *Mak*-ek, Beriainek eta Lizarragak beti *gañean* dute.

Testuan *amorioa* (10, 54) eta *amorria* (33), biak daude. Lehena Nafarroan oso hedatua dagoen bitartean, bigarrena ez da ezagunegia (cfr. *OEH*). Baliteke errata bat izatea, edo beste autoreren batengandik jasotako aldaera, nahiz eta Iberoko testuan (Arraiza, 1988: 146) ere baden horrelako txandaketa bakanen bat.

Eraqueria (63) aldaera oso ohikoa da Mendibururen testuetan eta Lizarragak, Ubillosek eta Kardaberatzek, Añibarrok eta Hegoaldeko autore askok darabilte XVIII. mende amaieran eta XIX. mende hastapenean.

5. ONDORIOAK

Testuak ez izenik ez datarik ez kokaleku jakinik ez duenez, abiaburutzat Untzu edo ingurukoa izan zitekeela onartu dugu. Testu honek ez ditu konparagai hartu ditugun gainontzekoen ezaugarriak ehuneko ehunetan betetzen, beraz, ezin esan dugu idazki honen egilea eta orain arte ezagutzen ditugun beste testuenak pertsona berbera direnik. Horrekin batera, ez dirudi testua Untzukotzat bertakotzat hartzeko kontrako argudio dialektologiko franko dagoenik, izan ere, testuak ageri dituen ezaugarri gehienak Ezkabarte eta Txulapain aldeko gainontzeko testuetan azaltzen ohi dira, nahi bada, instrumental apikariaren sistematikotasuna izanik zalantzazko ezaugarri bakanak.

Dudarik gabe testuaren balioa darabilen euskara txukun eta aberatsean datza. Seguru egon gaitzeko testu honek idatzaldi gehiago izan zituela, ez baitu errata edo ezabaketarik. Bestalde, egileak euskaraz idatzi eta segur aski irakurtzeko ohitura zuela agerikoa da. Baliteke egilearen eskuizkribu gehiago gorde izana eta idazki hau gainontzekoekin zuzenean erkatzeak eman lezake une honetan anonimoa den idazle horri buruzko argibiderik.

6. ERREFERENTZIAK

- APEZETXEA [Apecechea], J., 1985, «Variantes del Avemaria en algunas variedades de euskara navarro», *Oihenart*, 4, Aingeru Irigarayri omenaldia, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 79-93.
- ARIZTIMUÑO, B., 2013, «Finite Verbal Morphology», in M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*, «Mikroglottika», 5, Peter Lang: Frankfurt am Main. 357-425.
- ARRAIZA, J., 1988, «Ibero. Via Crucis en vascuence del siglo XIX», *FLV*, 51, 143-154.
- ARTOLA, K., 1985, «Ezkabarteko euskara, Iruñeko Udal dermioaren ondokoa, Celedonia Zenoz andrearen ahotan», *Oihenart*, 4, Aingeru Irigarayri omenaldia, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 96-112.
- 1992, «Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze saiakera)», *FLV*, 60, 187-227.
- BERIAIN, J., 1980 [1621], *Tratado de como se ha de oyr missa*, faksimilea, Donostia, Hordago.
- 1626, *Dotrina Christioarena euscaras*, Iruña.
- CAMINO, I., 2003a, *Hego Nafarrena*, Iruña, Nafarroako Gobernu.
- 2003b, «Hego Nafarreraren egituraz», *FLV*, 94, 427-467.
- 2011, «Pirinioak, ekialdea eta euskal mintzoak», in A. Sagarna; J. A. Lakarra; P. Salaberri (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*, Iker 26, Bilbo, Euskaltzaindia, 773-822.
- DIEZ DE ULTZURRUN [Diez de Ulzurrun], P., 1960, «El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828», *Euskera*, 5, 377-403.
- ELIZALDE, F., 1994 [1735], «Apezendaco dotrina christiana uscaras», *FLV*, 65, 41-65.
- ETXAIDE [Echaide], A. M., 1984, *Erizkizundi Irukoitza (euskara 1925)*, Iker 3, Bilbo, Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA, 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo, Euskaltzaindia, [=OEH].
- HUALDE, J. I., 1989, «Fonología léxica y post-léxica, con especial referencia a la lengua vasca», *ASJU*, 23: 2, 651-662.
- IBARRA, O., 1996, «Bonaparteren sailkapena eztabaidatuz», *FLV*, 71, 71-86.
- 2007, *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia*, Mendaur bilduma IV, Iruña eta Bilbo, Nafarroako Gobernu eta Euskaltzaindia.
- IRIGARAI [Irigaray], A., 1932, «Un acta de ayuntamiento en lengua vasca», *RIEV*, 23, 565-568.
- JAMBOU, L., 1988, *Evolución del órgano español: siglos XVII-XVIII*, 2. liburukia, Oviedo, Oviedoko Unibertsitatea.
- LAKARRA, J. A., 1984, «Bizkaiera zaharreko ablatiboaz», *ASJU*, 18: 1, 163-193.
- MEDIAVILLA, B., 2005, *Inventario de documentos sobre el Real Monasterio del Escorial existentes en el archivo de su Real Biblioteca: (1631-1882)*, San Lorenzo de El Escorial, Ediciones Escorialenses.
- 2009, *Libros de cuentas del Real Monasterio del Escorial: inventario s. XVI-XIX*, San Lorenzo de El Escorial, Ediciones Escorialenses.
- 2010, *Inventario de documentos sobre el Real Monasterio del Escorial existentes en el archivo de su Real Biblioteca: (1560-1885)*, 2. zatia, San Lorenzo de El Escorial, Ediciones Escorialenses.
- MITXELENA, K. [Michelena, L.], 1977 [1961], *Fonética histórica vasca*, ASJU-ren gehigarriak 4, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia [=FHV].
- 1990 [1964], *Textos arcaicos vascos*, ASJU-ren gehigarriak 11, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia [=TAV].
- NOONE, M., 1998, *Music and Musicians in the Escorial Liturgy under the Habsburgs, 1563-1700*, Rochester, University of Rochester Press.
- ONDARRA, F., 1981, «Primer sermón en vascuence navarro (1729)», *FLV*, 38, 147-173.
- 1982, «Textos en vascuence navarro de Baztán, Nuin y Urdazubi», *FLV*, 40, 387-399.
- PAGOLA, R. M. et al., 1996, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: hegoaldeko goi-nafarrera*, 4 liburuki, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.
- SALABERRI, P., 2000, «Sobre el euskera de Pamplona y su cuenca», *Euskera*, 45: 3, 881-920.
- 2002, «Acerca del euskera de Pamplona y sus alrededores», in A. García (zuz.), *La Comarca de Pamplona. Territorio, economía, sociedad e historia*, Iruña, Iruñerriko Mankomunitatea, 225-241.
- 2004, «Artatzako euskal testua. Transkripzioa eta hizkuntza azterketa», *FLV*, 97, 537-554.
- 2008, «Altxorraren bila: Lizarraga Elkanokoaren aberastasunak *kaustu nahiz*», in Euskaltzaindia (arg.), *Jean Harischelhar-i omenaldia*, Iker 21, Bilbo, Euskaltzaindia, 597-616.

- SANTAZILIA, E., 2007, «Joaquín Lizarraga Elkanokoaren euskararen zehaztasun bat mintzagai», *Haria*, 18, Iruña, Nabarralde, 42-48.
- 2013, «Noun Morphology», in M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*, «Mikroglottika», 5, Peter Lang, Frankfurt am Main, 223-281.
- SATRUSTEGI [Satrustegui], J. M., 1984, «El edicto eclesiástico de 1750 en versión vasca de la cuenca de Pamplona», *ASJU*, 18: 1, 41-51.
- 1987, *Euskal Testu Zaharrak I*, Iruña, Euskaltzaindia.
- 2002, «Ukar Itzarbeibarko doktrina (1865)», *FLV*, 89, 149-168.
- SCHUCHARDT, H., 1923-1947, *Primitiae Linguae Vasconum*, Salamanca, Colegio Trilingüe de Salamanca.
- TRASK, R. L., 1995, «On the History of the Non-Finite Verb Forms in Basque», in J. A. Hualde; J. A. Lakarra; R. L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language*, Philadelphia, John Benjamins, 208-234.
- ZELAIETA, E., 2004, «Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (I)», *FLV*, 94, 223-248.
- ZUAZO, K., 2010, *Sakanako euskara. Burundako hizkera*, Mendaur bilduma VIII, Iruña eta Bilbo, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.

ERANSKINA. FAKSIMILEA

zconcera doacine^t emandaqui^t quieten airiso gaisa
 Bequiza zacie, nere crictabac, gendeen arraza
 munduan irauteco ta conxvaceco den lana, de-
 la ezconza edo matrimonioa, eta videnabar na
 maiee, Jaungoicoac vide ontara deitu esgueros, ta
 artaraco impedimentuic ez izan esgueros, arde-
 zaquen vide, zuec orai arcera zoazten vici-
 modu hau. Luxeco Paradi^uuan Adan ta Eva
 ren artean Jaung^{ac} beinpein equinico lana,
 da ezconza; eta guero berri areu Semec, gure
 amorioa guizon equinico luxera Jaurica le-
 gue berria mundu gucira baxxatu zuenean,
 vici zuen ezconza santificatuic, edo sacramen-
 tura biuatuic: eta vicoeco garbitasun andi-
 bat ereacen balimbedute sacramentuic, an-
 tu behartuztenen aldeti, izanico matrimo-
 nioa sacramentu, ta ^{sup} Pabloe exatenduenes
 sacramentu andia, ecuracie, nolaco santidadea,
 ta garbitasuna ecatuco duen zuen baitan, zu-
 ec orai equitexa zoazten matrimonio onee.
 San ontara concienca garbiequi, ta ongui pres-
 tatuta elduderenei, ematen diote Jaung^{ac} elcar-
 ren artean baquean vicitzeco, vici modu ontan
 izan oi deren neque, trabaju, ta naigabeac anin
 eremateco, ta beren gain arcen duten obligue-

eioari cobru emateco, behar duten gracia, bedicioa,
 ta uocorru gucia. Cursacie bada, nola, ta cer al-
 detara zucendu behartuen ceren iri gucio as-
 mo, ta equiteco guciac. Sure Jaunac urizuen
 sacramentu hau, himer beinipein mundua,
 ta guero cexua ones, ta iandus betexie vste-
 co, ta elcarri laguneco iri doren artes beren
 lan, ed Joan etoxi gucietan, beinere albas
 eman gabe batac berceari beren erteco amoria
 galdu deraguen vide, ed ocariorie. Infn ed
 azqueneo matrimonioa eman izandu equio-
 ten guizonen, araguiaren aldetie izan oideren
 biricacio macurac obequi escuzaceco, ta guizo-
 nac bere andrea, ta andrea bere guizona izan-
 esgueros, etezaten izan lizunqueniataraco
 guziagaco gogo charrie. Orgatic equin behar-
 ducie aleguina vicitcear contuarequin, elcarri
 zor diocien leialtadea beinere albas galdugabe,
 ta videgabeco lanegui ceren ezconza ciguinduga-
 be; cergatic ezcondu esgueros bein, ez guizonac
 du ecurtecorie bere gogutcear, ta ain guti an-
 dreac ere berean, diom bezala s. m. abloc, ta onequi
 erian mai duena da, ezcondu esgueros, andrea-
 rera dela guizona, ta andrea berxis senarra-
 rera. Sacramentu onec dacar berequi, guze

. Jevur onac Cliza bere esposarequin equinzuen
 unione arren significacioa, eta ala Cliza bere
 esposari gure Jaurrac iduquicion amoxiarene era-
 coa, iduqui behardocie elcarri zuec ere. Unical-
 du behar zaió quizona bere andrearri, creatura exi-
 agocoa dena bezala: laguna emanen dzuon, ta
 ez esclava. Senarrac principalqui bere andrea-
 ren laguncearequi bates izan behar du echeco
 familia ta ondacunen maneazalea, ta con-
 servazalea, utiñic aldebat alferqueria, gaitz
 guicien ituzria dena bezala. Senarraren es-
 cupean egon beharduzu zuec, esposa, echeco go-
 bernuari dagozquion gauza gucietan: despre-
 ciatucotuzu munduco eraqueriac virtuteen he-
 bertanunaren aldean: continuarequin zaituc du-
 zu ceren echecs hacienda: izanen zara carti-
 dadearen virtutearequi exchizic dagon ituzria
 bezala: Jaung. ^{as} landara nior ere ez tu andreas
 bere senarra bano gueiago estimetu ta onerri
 behar, ez eta quizonac bere andrea bano gueia-
 go ere. Conveni den queian astucoducie elcar, ta el-
 car ongui astur, elcarri lagundus, eta supituc, vñi-
 co zarate baquean, ta Jaung. ^{ac} aguincen dicien
 eran. Cembait aldir, ta erac ala aguincen du-
 en queian, galduco ducie ceren aldetic naiz

batac, mais berceac ceren exteco baqueasen ga-
 tic. Bana gucién gáñen pensazacé ongui,
 Jaungoicoari mila conu eman behax docién
 ceren vicitzas ez eci, bai eta ceren hurre, ta
 familiénar ere. Conu ardi'ar iduqui behar-
 ducie, Jaung. ^{ren} beldurtaruna ceren echoco,
 ed meneco gucié: exacustearén gáñeri.

Era ontan portacen bazarate bada, orai
 árcera zoazten eradoan, Jaung. ^{ac} arindu-
 co du zuén vztaxia, lagunduco dicité be-
 harducien gucién, ta emanen dicité bere
 bedicio sandua, ta vicitza onen ondorean
 berrir seculaco deccancua, ta gloria.

LABURPENA

Iruñe ondoko euskal testu zahar berri bat

Untzuko (Txulapain) parrokian edo inguruan orain gutxi agertu den euskal eskuizkribu zahar baten edizio eta azterketa dakargu lan honetan. Testuaren deskribapena egin dugu eta izkribua itzulpen-moldaketa dela kontuan harturik, jorratzen duen gaiaz eta testua euskaraz egotearen arrazoiez azalpen zenbait eman ditugu. Idazkiaren estilo txukuna gogoan, egile anonimoaren eza-gupenen eta eraginaren gaineko ondorioak atera ditugu. Horrezaz gain, testua ikuspegi filologiko eta dialektologikotik aztertuta, dagokion garaian eta hizkeran kokatzen saiatu gara. Eskuizkribuaren transkripzioa, grafia eta puntuazioa gaurkotua duen bertsioa eta jatorrizkoaren faksimilea ere eman ditugu hemen.

Gako-hitzak: dialektologia; edizioa; filologia; itzulpena; testu zaharra; Txulapain.

RESUMEN

Un nuevo texto vasco antiguo de cerca de Pamplona

En este trabajo presentamos el estudio y edición de un antiguo manuscrito en vasco hallado recientemente en la parroquia de Unzu (Juslapeña) o alrededores. Hemos descrito el texto y, al tratarse de una traducción-adaptación, hemos dado algunas explicaciones en torno al tema que trata y al motivo por el cual está redactado en vascuence. Teniendo en cuenta el cuidado estilo del escrito, hemos sacado algunas conclusiones sobre los conocimientos e influencias del autor anónimo. Además, tras estudiar el texto desde el punto de vista filológico y dialectológico, hemos tratado de ubicarlo en la época y variedad lingüística que le corresponde. También ofrecemos la transcripción, la versión en grafía y puntuación actualizada y el facsímil del original.

Palabras clave: dialectología; edición; filología; Juslapeña; texto antiguo; traducción.

ABSTRACT

A new old Basque text near Pamplona

This paper presents an analysis and an edited version of a manuscript in Basque recently discovered in the parish of Unzu (Txulapain / Juslapeña) or its surroundings. Considering this is a translation-adaptation, the text is described and some explanations both about its topic and the reason for it being written in Basque are supplied. Bearing in mind the elevated style of the writing, some conclusions about the knowledge base and the influences received by the anonymous writer are also drawn. After a philological and dialectological analysis, the text has also been placed in its corresponding time and linguistic variety. Furthermore, its transcription, a version in modern spelling and punctuation, and the facsimile from the original are provided.

Keywords: dialectology; edition; old text; philology; translation; Txulapain / Juslapeña.

RÉSUMÉ

Un nouveau texte basque vieux près de Pampelune

Dans cet article, nous présentons l'édition et l'analyse d'un manuscrit basque découvert il y a peu à la chapelle d'Untzu (Txulapain) ou à ses alentours. Nous avons décrit ce texte et, en prenant en compte qu'il s'agit d'une traduction-adaptation, nous avons donné quelques explications concernant le

sujet et de la raison par laquelle il est écrit en basque. Le style soigné de ce manuscrit nous a également donné un support afin d'en déduire les connaissances, ainsi que les influences, de cet auteur anonyme. D'autre part, d'un point de vue philologique et dialectologique, nous avons essayé de remettre le texte dans son époque et la variété linguistique qui lui correspond. Nous mettons ainsi à votre disposition la transcription du manuscrit, une version dont la graphie et la ponctuation sont actualisées, mais également le fac-similé de la version originale.

Mots-clé: dialectologie; édition; philologie; texte ancien; traduction; Txulapain / Juslapeña.

